Bergarako astekaria

# Berrigara



# Taula flamenkoaren gora-beherak

MECA
BERGARA
Amillaga 5
BERGARA
T. 943 76 40 68




Ezagutu ezazu
Mégane berria
MECA BERGARAn

RENAULT

# Zatoz gure moda ezagutzera

LAKET · LAKET · LAKET · LAKET







Txiki LAKET

LAKET Emakumezkoak

ZABALDU BERRIA!

Irala 5 Tf. 943 76 37 41




# *Txuringo Jatetxea*





*~Menua eta karta*
*~Ezkontzak*
*~Jaunartzeak*
*~Txerrikumea, bildotsa, baserriko oilaskoa labean erreta...*

***OSINTXU. Tf. 943 76 48 63***



# Gerra hotza

**Iñigo Iñurrategi** / Ikaslea. Kanada, 1999ko apirila

Azken asteotan berriz ere inguratu omen zaigu mamu hotsa: "gerra hotzaren atarian" omen gaude. Barrez erantzungo dio, noski, gure auzoko supermerkatuaren aurrean eskean jarduten duen "soldadu" anonimoak, berak dolar xentimuak lortu ahal izateko gerra, ataria eta hotza ondoegitxo ezagutzen dituela esanez (hotza behintzat bai, zin dagit). Norbait arriskuan ere senti liteke, agian, errusiarren misilen helburu nagusietako bat (USAko inteligentzi zerbitzuen arabera) gure hiria (Montreal) dela jakinik. Oporretan harrapatuko ote nau!

Lewinsky produktua jadanik saldotan dagoen honetan, ipar-amerikarrak ez dauka zeri buruz berba egiterik (barkatu, hemen ere hockey, foot-ball eta beisbolak ere jende multzo handi bat egoera ingrabitatorio batean mantentzen du). Eta hara non Milosevic jaunak arnasa sendo hartzeko beste arrazoi bat ematen dien. Orain besterik ez daukagu medioetan: Kosovo eta gerra hotza. Zuek, behintzat, horko medioetan aukeratzerik badaukazue gerra hotza eta gerra zikinaren artean.

USAko biztanleen zati handi bat Kosovo mapan non dagoen kokatzeko gauza ez den arren, herritarrok (zer esanik ez politiko eta kazetariak) harro sentitzen dira beraien B-2 suntsitzeko monstruo superbonbardero berriaren arrakastaz. Ez dituzte alperrik gastatu 2.100 milioi dolar bakoitzeko (320.000 milioi pezeta eta euro dezente), ia porta-abioi batek beste!

*"Kosovarrek, lehendabizi, etxean daukate arazorik nagusiena, eta serbiarren erasoak nolabait batu baditu ere, beraien artean iritzi guztiz kontrajarriak daude"*

Bitartean, Jose Mari eta gainontzeko monagilo europarrak atzetik, amenka. Arazoa europarra bezain korapilatsua izanik, inork ez du sakoneko arrazoietan murgildu nahi izan (badira urteak Tito hil zenetik) eta orain osaba Samen epe motzeneko erremedioarekin ekin diote: armak. Dena den, eta batzuk horretan saiatzen diren arren, ez pentsatu ELK-ko gudari kosovarrak, edo Drenica-ko gerrillari Kacaki-ak beraien etxeak defendatu nahi dituzten aingerutxo batzuk direnik. Kosovarrek, lehendabizi, etxean daukate arazorik nagusiena, eta serbiarren erasoak nolabait batu baditu ere, beraien artean iritzi guztiz kontrajarriak daude. Eta ez dut jakin ere egin nahi arma saltzaileek guzti honetan izan dezaketen interesa... kk esplikatzen hasiko ginateke.

Bukatzeko, harrigarria da PPkoen jarrera Serbiarekiko, izan ere politika mailan Milosevic-en estrategia berekoak dira. Hori bai, Madrileko jostunek ederki mozorrotu dute demokrazia eta konstituzioz. B

## barruan




**Unai Lopez**
Bakearen aldeko ibilaldikoa
***"Bakean bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatuko da bihar Arantzazun"***
8.



**Ane M. Fernandez**
Gimnasta
***"Eibarren entrenatzaile eta baliabide gehiago ditugu; ordutegia ere malguagoa da"***
21.



**Sergio Romero**
Ikaslea
***"Institutua bukatutakoan geografia edo itzultzaile lizentziatura egiteko asmoa daukat"***
29.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1937.*** Apirilaren 15ean, Gerra Zibilean, San Antonioko Algodonerako lantegia bonbardeatua izan zen. Langile askok bizia galdu zuten eta kalte material ugari izan ziren.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1897.*** Apirilaren 13an Donostiako parte zaharreko kale izenak euskaraz eta erdaraz ipini ziren.

***1931.*** Apirilaren 14an Eibarko udaletxean Errepublika aldarrikatu zen, beste inon baino lehenago.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1825.*** Apirilaren 16an Van Eys euskal idazlea jaio zen Amsterdamen.

***1980.*** Apirilaren 14an Severiano Ballesterosek Estatu Batuetako golf masters-a irabazi zuen.

***1986.*** Apirilaren 13an Jerez de la Fronterako automobilen zirkuitua inauguratu zen.

# zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 9**
3-5-12-27-38-47 (osag.39/itz.4)

**Astelehena 12**
1-2-12-17-33-38 (osag 6/itz.7)

**Martitzena 13**
3-23-24-26-27-33 (osag.42/itz.6)

**Eguaztena 14**
9-12-16-17-43-49 (osag.13/itz.8)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 10**
10-23-31-35-44-49 (osag.21/itz.9)

**Domeka 11** ***Saritzarra***
5-6-24-37-38-39 (osag.21/itz.3)

**ONCE**

**Eguakitza 9:** 43.437 (115 seriea)
**Astelehena 12:** 21.092
**Martitzena 13:** 46.057
**Eguaztena 14:** 04.384

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*



Hodeiak, tarteka urdinguneak eta, noiz behinka, euria iragartzen da astebukaera honetarako ere. Beraz, denetik izango dugu, azken egunotan bezala. Tenperatura freskoak izango dira, haizeak iparretik joko du eta.

## Ilargiaren aldiak

Ilbehera: apirilak 9
Ilberri: apirilak 16
Ilgora: martxoak 22
Ilbete: martxoak 30

## Eguzkia

*Domeka, apirilak 18*

Sortu: 07:36

Gorde: 21:01

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 8** | 13 | 10 | *2,9* |
| **Eguakitza 9** | 16 | 5 | - |
| **Zapatua 10** | 19 | 3 | *1,4* |
| **Domeka 11** | 12 | 9 | *1,1* |
| **Astelehena 12** | 14 | 7 | *16,4* |
| **Martitzena 13** | 12 | 7 | *6,9* |
| **Eguaztena 14** | 16 | 7 | *19,4* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Argizai-negar**

Argizaia urtzerakoan sortzen den tanta. Argizai-tanta.

*- Lur guztia argizai-negarrez beteta dago.*




# hamaika ikusteko jaio ginen!

## Lan eta lan

Hego Koreako hiriburuan, Seulen, Samsung enpresak bere langileendako eta hauen senitartekoendako zentru berezi bat sortu du. Ez da nolanahiko zentrua ordea, aisialdiko jarduerei zuzendua dago: sukaldaritza-klaseak, informatika, gimnasia, makilajea, moda... Itxura denez, korearrek nahiago dute beraien aisialdia ofizinan edo ofizina inguruetan igaro beste inon baino.

# Farmaziak

**Eguakitza 16:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Zapatua 17:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Domeka 18:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Astelehena 19:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05.*

**Martitzena 20:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Eguaztena 21:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Eguena 22:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

# Ogia

**Domeka 18:** Konde.

# Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 112 |
| DYA | 943 78 71 57 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 76 |
| Larrialdiak | 943 46 11 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 40 |
| Anbulantzia | 943 55 49 62 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 06 |
| Ertzaintza | 943 76 53 40 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 00 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 40 |
| Arrasateko ospitala | 943 03 53 00 |
| Asepeyo | 943 76 16 43 |
| Pakea | 943 76 13 49 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 27 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 23 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 31 |
| PESA | 902 10 12 10 |
| Taxiak | 943 76 19 50 |
| RENFE | 943 28 35 99 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 00 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 32 |
| Igerilekuak | 943 76 20 51 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 58 |
| Liburutegia | 943 77 91 62 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 68 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 92 |
| Erregistroa | 943 76 13 15 |
| Jardun | 943 76 36 61 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 40 |
| Postetxea | 943 76 26 85 |

# zorion agurrak



**Ander Mengual**
Apirilaren 16an
10 urte.
Urte askotarako!
Mikel eta familia.



**Jose Sanchez**
Apirilaren 17an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Maria eta familia.



**Olatz Alberdi**
Apirilaren 17an
2 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak.



**Nagore Clemente**
Apirilaren 19an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Gurasoak eta anaia.



**Aimar Igarza**
Apirilaren 19an
7 urte. Urte askotarako! Etxekoak eta, batez ere, Nagore.



**Andres Encabo**
Apirilaren 22an
19 urte.
Urte askotarako!
Dani anaia.



**Milagros Arregi**
Apirilaren 19an
urtebetetzea. Urte askotarako! Alabak, suhiak eta ilobak.



**Aitziber Azagirre**
Apirilaren 19an
10 urte. Urte askotarako! Aiton-amona eta familia.



**Vanessa Gimbert**
Apirilaren 19an
19 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Aitor Elorriaga**
Apirilaren 20an
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Mariñe Jauregi**
Apirilaren 18an
2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



**Nerea Blazquez**
Apirilaren 17an
8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



**Xabier Olabarria**
Apirilaren 17an
8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.

*URTEURRENA*

## Kosme Agustin Muguruza Lizaso



Lehen urteurreneko meza
domekan, apirilak 18,
eguerdiko 12:30etan, San Pedron.

*Elizkizunetara joango zaretenoi,*
*aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

*ESKER ONA*

## Boni Olabarria Larrañaga



Donostian hil zen
1999ko martxoaren 21ean,
51 urte zituela.

*Hileta-elizkizunetara joandakoei*
*eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi*
*eskerrik asko sendikoen izenean.*

### hildakoak

**BERGARA**

**Francisco Miranda Alvarez**
Apirilak 7, 54 urte

**Maria Dolores Berasategi Sarriegi**
Apirilak 9, 76 urte

**Bernardina Alkorta Mujika**
Apirilak 10, 83 urte

**Vicenta Villa Jimenez**
Apirilak 11, 70 urte

**Mercedes Gallastegi Txintxurreta**
Apirilak 13, 90 urte

**Mari Karmen Mendizabal Errasti**
Apirilak 13, 59 urte

**Matias Atorrasagasti Gantxegi**
Apirilak 14, 79 urte

### jaiotakoak

**BERGARA**

**Igor Iglesias Brey**
Martxoak 30

**Mikel Agirre San Emeterio**
Martxoak 31

**Xabier Azpiazu De la Presa**
Apirilak 5

**Leire Ugalde Beldarrain**
Apirilak 7

**Amagoia Roman Lazpiur**
Apirilak 8

*Berrigara 364an,*
***APIRILAREN 23a** eta **29a** bitarteko*
*lagunen zorion agurrak bakarrik*
*argitaratuko dira.*

### PESA autobusak

**Bergara-Antzuola.** *Lanegunak:* 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. *Zapatuak:* 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

**Antzuola-Bergara.** *Lanegunak:* 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. *Zapatuak:* 08:30, 18:00, 20:40. *Domeka eta jaieg.:* 10:00, 18:00.

**Bergara-Arrasate-Eskoriatza.** *Lanegunak:* 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). *Zapatuak:* 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

**Bergara-Gasteiz.** *Lanegunak:* 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. *Zapatuak:* 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. *Domeka eta jaiegunak:* 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

**Gasteiz-Bergara.** *Lanegunak:* 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Zapatuak:* 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 09:00, 10:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

**Arrasate-Bergara.** *Lanegunak:* 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08: 05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. *Zapatuak:* 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20 . *Domeka eta jaiegunak:* 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

**Bergara-Oñati.** *Lanegunak:* 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. *Zapatuak:* 20:45. *Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.*

**Oñati-Bergara.** *Lanegunak:* 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. *Zapatu, domeka eta jai egunak: ez dago zerbitzurik.*

**Bergara-Eibar.** *Lanegunak:* 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Zapatuak:* 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. *Domeka eta jaiegunak:* 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

**Eibar-Bergara.** *Lanegunak:* 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Zapatuak:* 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45,15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. *Domeka eta jaiegunak:* 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

**Bergara-Donostia (Autopistatik).** *Lanegunak:* 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. *Zapatuak:* 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. *Domeka eta jaiegunak:* 10:05, 19:35.

**Bergara-Donostia (Tolosatik).** *Lanegunetan:* 09:00, 18:00. *Zapatuak:* 09:00, 18:00. *Domeka eta jaiegunak:* 10:00, 18:00.

**Donostia-Bergara (Autopistatik).** *Lanegunak:* 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. *Zapatuak:* 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. *Domeka eta jaiegunak:* 18:00, 20:45.

**Donostia-Bergara (Tolosatik).** *Lanegunak:* 07:00, 16:30. *Zapatuak:* 07:00, 16:30. *Domeka eta jaiegunak:* 08:30, 16:30.

**Bergara-Bilbo.** *Lanegunak:* 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. *Zapatuak:* 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. *Domeka eta jaiegunak:* 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

**Bilbo-Bergara.** *Lanegunak:* 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. *Zapatuak:* 08:00, 17:00, 20:00. *Domeka eta jaiegunak:* 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

# ANTZERKIA

▶ **Salvador Collado** konpainiaren "Un espiritu burlon" gaur, eguakitza, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

# MUSIKA

▶ **Robyn Hitchcock** gaur, eguakitza, 22:00etan Jamen. Eguenean, **The Skatalites** eta **Iskanbila,** 20:00etan.

▶ **Aritzeta** abesbatza zapatu eguerdian Narbaxan, Araban.

▶ **Ile Hamalainen** (Finlandia) eta **The blues machine** taldeak domekan, hilak 18, 22:00etan Soraluzeko Gaztelupe tabernan.

▶ **Mikel Markez eta Pako Aristi**ren "Tribuaren hitz galduak" hilaren 23an 19:00etan Arrasaten, Monterronen.

# ERAKUSKETA

▶ **Juan Jose Altuna Akizu eta bere ikasleen erakusketa** Kultur Etxean, apirilaren 25era arte.

▶ **Bingen De Pedro**ren margo erakusketa Eibarko Portalea aretoan (Bista Eder, 10), apirilaren 25era arte.

▶ **Ricardo Azkargorta**ren margoak Iruñeko Carlos III Kultur Etxean (Carlos III. kalea) maiatzaren 8ra arte.

PAILAZOAK

## *Takolo, Pirritx eta Porrotx*

**Non:** Udal Pilotalekuan
**Noiz:** domekan, 17:00etan
**Sarrera:** 600 pezeta

Mariaren Lagundia ikastetxearen 200. urteurrena ospatzeko antolatutako ekitaldien artean, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldia izango da bihar zapatua Udal Pilotalekuan. Pailazo hirukotea aski ezaguna da gure artean. Taldea 1987an sortu zen eta ordutik emanaldi ugari eskeini dute Euskal Herriko bazter guztietan. Horrez gain, azken urteotan, "Beti martxan", "Ongi bizi", "Kili Kili", "Tantaka Yotanka", "Makarroiak" edo "Baserrian" izenburuko diskak plazaratu dituzte. Hain zuzen ere, "Baserrian", euren azken lana aurkeztuko dute domekan Bergaran. Takolo, Pirritx eta Porrotx amona Josefinaren baserrira joango dira eguna pasatzera. Hirurek ere primeran pasako dute etxeko lanetan lagunduz, Pantxika astoarekin dantza eginez, oilategira arrautzen bila joanez..., etabar. Hala ere, Margarita oiloa ez da ageri eta bere bila joan beharko dute pailazoek. Haurrek pailazoen gorabehera xelebreekin gozatuko dute emanaldian zehar, hirukoteak espero ez zuen bisita jasotzen duen arte: Melontzio Makalontzio diruzale amorratuak baserria erosi nahi du, hamar pisutako etxea eraiki ahal izateko. Baina amonak eta baita pailazoek baserria bizirik nahi dute. Melontzio Makalontzio, ordea, maltzurra eta burugogorra da.

Pailazoen eskema klasikoari jarraituz, batek (Takolok) pertsonaia serioarena egiten du eta beste biak erabat bihurriak dira. Sketch barregariak kantuekin tartekatuko dituzte eta domekako emanaldia ordu eta erdi ingurukoa izango da.



Pailazoekin barre egiteko aukera izango dute haurrek domekan.

# IKASTAROAK

▶ **Sorospen ikastaroa** apirilaren 19tik maiatzaren 14ra bitartean, DYAk antolatuta. Astelehenetik ostiralera, 19:30etatik 21:00etara Kultur Etxean. 943 78 71 57.

# LEHIAKETAK

▶ **Bergara Hiria argazki lehiaketa**. Zuri-beltzeko edo koloretako argazkiak aurkeztu ahal izango dira, 30x40 zm.ko kartulinan. Lanak maiatzaren 11ra arte jasoko dira Kultur Etxean. Argibideak 943 76 30 90 (Benito) zenbakian.

▶ **Literatur lehiaketa**, Udaleko Euskara Zerbitzuak deituta. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 16an bukatuko da. Argibideak 943 77 91 66 zenbakian.

IKUSBI
ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK
Irala 5 ☎ 943 76 53 09

Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a
Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak
A. ZANGITU
ORDUTEGIA: 8.00-13.00 eta 15.00-20.00
☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

▶ **Pazkuetako pegatina lehiaketa** deitu du Jardun elkarteak. Taberna eta ikastetxeetan lagatako kaxetan laga daitezke haien inguruko esaldiak, apirilaren 21era arte.

# DEIAK

▶ **Moda desfilea** bihar, zapatua, 17:00etan eta 19:00etan Ipintza institutuan, ikasleen ikasbidaiaren alde. Sarrerak aurrez 500 eta takilan 600 pezetan.

▶ **Mitch hurakanak** eragindako kaltetuen aldeko aerobitoi erraldoia bihar, zapatua, 16:00etan Arrasateko Iturripe Kiroldegian. Izen-ematea 943 79 52 17 zenbakian.

▶ **Merkataritza ihardunaldia** martitzenean, hilak 20, 14:15etan Arrasateko Lantegi Eskolan. Xabier Aldaregiak errenta aitorpena, iharduera ekonomikoak eta enpresako forma juridikoen gainean jardungo du. Izen-ematea doan Gipuzkoako Bazkundean, 943 27 21 00 zenbakian (Isabel Insausti)

▶ **Euskal Herritarrok** taldearen aurkezpen publikoa eguenean, hilak 22, 19:30etan UNEDeko areto nagusian. Hizlariak: EHko Promotora nazionaleko kide bat eta Bergarako Promotorako ordezkari bat.

▶ **Zezenzaleak** taldeak apirilaren 24an Orozkoko Benigno Manzarbeitiaren ganadutegia ikustera joateko egun osoko irteera antolatu du. Izen-ematea Ganbara tabernan eguena baino lehen.

▶ **Aranzadi Ikastola**k uztailean ingelesa ikasteko eskolaz kanpoko iharduerak antolatzen ditu: enjoy ingelesa (6-14 urte bitartekoentzat), ingeles udalekuak (15 eguneko egonaldiak barnetegian) eta, azkenik, 4 asteko egonaldia Irlandan. Argibideak 943 76 90 71.

▶ **San Joxepe**. Donostiako **La Perla** termetan bainuak hartzeko autobusak izango dira apirilaren 26an, 28an eta 30ean eta maiatzaren 3an, 5ean eta 7an. Argibideak 943 76 21 40 zenbakian.

▶ **San Donato**ra egun osoko mendi irteera domekan, hilak 18, goizeko 8etan Frontoitik. Txartelak Pol-Polen eta Lazkano oinetakodendan.

▶ **Fatimara peregrinazioa**, maiatzaren 18tik 22ra, frantziskotarrek antolatuta. 33.000 pezeta. 943 78 09 51.

▶ **A-8 Doan** gizarte akordioak deituta, kotxe karabana aterako da bihar, zapatua, 10:00etan Elgoibarko Lerun futbol zelai zaharraren ondotik.

▶ **Euskal Mendi Federazioaren** 75. urteurrena ospatzeko **bazkaria** izango da maiatzaren 23an Elgetan. Txartelak (2.500 pezeta) Pol-Polen salgai. Plaza mugatuak.

## Z I N E A

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**

**Celebrity**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**Babe, el cerdito en la ciudad**
Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

**Mi desconfiada esposa** (J.B.)
Eguena: 21:30.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Hi-lo country**
Eguakitza: 22:00.

**Muertos de risa**
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30, 22:00.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:00.

**EIBAR. Unzaga**

**Mensaje en una botella**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**Payback**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**

**Tienes un e-mail**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**Cosas que deje en La Habana**
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**OÑATI. Santana**

**La vida soñada de los angeles**
Eguakitzetik domekara: 22:30.
Astelehena: 19:30.

**Bichos**
Domeka: 17:30, 19:30.

**CELEBRITY**
***Zuzendaria:*** Woody Allen.
***Aktoreak:*** Kenneth Branagh, Hank Azaria, Melanie Griffith.
Urtero Woody Allen zuzendariak filme bat ematen du argitara eta azken urteotako gehienak maisu lanak izan dira (*Todos dicen I love you, Desmontando a Harry*). Azken honetan, gaurko gizartean ospea azkarregi lortzen duten pertsonei buruzko satira erroodatu du. Kamara atzean jarri eta protagonismoa Branagh aktoreari utzi dio.

**BABE, EL CERDITO EN LA CIUDAD**
***Zuzendaria:*** George Miller.
***Aktoreak:*** Magda Szubanski, James Cromwell, Mary Stein.
Babe txerrikumearen abenturek izugarrizko arrakasta izan zuten orain dela urte batzuk. Orain, *Hogett* senar emazteen baserria egoera ekonomiko larrian dago eta *Hogget* andreak (Magda Szubanski) hirira joan beharko da laguntza eske.

**MI DESCONFIADA ESPOSA**
***Zuzendaria:*** Vincente Minnelli.
***Aktoreak:*** Gregory Peck, Lauren Bacall.
Vincente Minnellik bere maisutasuna erakutsi zuen hainbat jenerotan eta 1957ko komedia honekin arrakasta handia lortu zuen. Lauren Bacallek bere filmerik onena dela aitortu du, kirol kazetari batekin (Peck) ezkontzen den moda diseinatzailearen papera egiten duelarik.

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

Lazkano
KIROL OINETAKOAK ETA OSAGARRIAK
Barrenkalea 15-17. BERGARA.
Tf. 943 76 25 03


Iturkintza • Berogintza • Bainuak
Laskurain
Barrenkalea 35, BERGARA.
Tf. 943 76 24 89

Mujika
gozotegia

Berezitasunak:
Bizkotxoak
Errellenoak
Tostoiak
Artekalea 3 BERGARA 943 76 10 34

**Donostiako Elizbarrutiak deituta, "Guztion artean bakea guztion alde" Arantzazura ibilaldia izango da bihar zapatua. Ibilaldiaren hirugarren edizio honetan 10.000 lagun biltzea espero da. Bergaratik irteera 8:40etan egingo da, Beheko Estaziotik. Biharko ibilaldirako Bergarako Artzapez-barrutiko koordinatzaile lanetan Unai Lopez 20 urteko gaztea izan dugu.**

UNAI LOPEZ

Bakearen aldeko ibilaldiko koordinatzailea

# "Bakean bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatuko da bihar Arantzazun"



Unai Lopez, martitzenean egindako elkarrizketan.

**G.** Zein da martxa honen helburua?

**E.** Orain dela hiru urte Donostiako Elizbarrutiak ekimen hau jarri zuen martxan bakea aldarrikatzeko asmoz. Elizaren helburu nagusienetako bat bakearen aldeko urratsak ematea da eta lan hori denon artean egiten badugu, askoz hobeto. Agintariek egiten dutenaren zai ez egoteko, hobe da gizarte osoak bakea bultzatzea, prozesu horretan buru belarri murgiltzea. Gizarteari mezu hori zabaltzeko sortu zen ibilaldiaren ekimena, gizartea mobilizatzeko eta bakearen kontra daudenek ere ikusteko zein den benetan gure gizartearen nahia.

**G.** Zer nolako erantzuna jaso duzue Bergaran zapatuari begira?

**E.** Badirudi aurten jende gehiagok parte hartuko duela ibilaldian. Iaz Gipuzkoa osoan 5.000 txartel jarri ziren salgai eta aurten, berriz, 8.000. Kopuru horri Oñatira kotxez joaten den jendea gehitu behar zaio eta, beraz, bihar 10.000 lagun inguru biltzea aurreikusten da. Bergaran, berriz, 250 txartel jarri dira salgai eta aste honetan nahiko eskaera izan dira. Bergarako kasuan jende nagusia izan da gehien interesatu dena (Goierri eta Urola aldean gazteen parte hartzea handiagoa da) baina bakearen beharra sentitzen duten guztiei zuzenduta dago ibilaldia. Lizarra-Garaziko Akordioak bezala, denok biltzen dituen bakea eskatzen dugu, ez zaizkio ateak inori ixten. Jendea bihar Arantzura joateko animatu nahi nuke. Bestalde jende askok galdetu du ea Arantzura goraino joateko autobusak izango diren baina zera azpimarratu nahi da, ibilaldia bera goian izango den ospakizuna baino garrantzitsuagoa dela, ekintza sinbolikoa da eta horri eman nahi zaio garrantzia gehien.

***"Zapatuko ibilaldia bakearen beharra sentitzen duten guztiei zuzenduta dago. Denok biltzen dituen bakea eskatzen dugu"***

**G.** Zer falta da eskatzen duzuen bakera iristeko?

**E.** Aurreko urteotan baino egoera hobean gaudela ematen du baina oraindik ere denok mahai baten bueltan bildu eta, sokatik tiraka ibili beharrean, alde guztietatik piskat zeditzea falta da. Orain hortarako bideak zabaldu dira eta bakearen alde zenbat eta mobilizazio eta adierazpen gehiago egin, hobeto. Bakean bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatu behar da. Zapatuan Bilbon ikusi zen bezala, jende bat badago horrekin konbentzituta eta neurri batean lehengo gauzak alde batera laga behar direla uste dut, guztiok piskat zedituz bakea lortzera irits gintezke. Gauza hain inportante bat lortu ahal izateko, esfortzu denak gutxi izango dira. Asko kostatzen da hori mantentzea. Galtzeko asko dago eta momentuan irabazteko gutxi, gero ikusiko dira emaitzak.

**G.** Bukatzeko, zein izango da zapatuko programa?

**E.** Bergaratik autobusak 8:40etan aterako dira Beheko Estaziotik eta 9ak aldera Oñatira heltzea espero da. Orduerdi beranduago ibilaldiari hasiera emango zaio eta eguerdiko 12etan Setien gotzaiak zuzendutako bakearen aldeko ospakizun bat izango da Arantzazuko Santutegian. Hura amaitutakoan, jeitsiera izango da, ordubata aldean-edo. Eguraldi txarra izatekotan, ospakizuna laburragoa izango litzateke. **B**

# Sekula baino turista gehiago aurtengo Aste Santuko oporretan

## Beti bezala turista gehienak Kataluniatik etorritakoak izan dira

**Inoiz baino kontsulta gehiago egin dira aurtengo Aste Santuan Turismo Bulegoan. Hain zuzen ere 326 kontsulta egin dira martxoaren 27tik apirilaren 11ra bitartean.**

Iaz 265 kontsulta egin ziren eta orain dela bi urte 244. Argi dago, beraz, kontsulta kopurua nabarmen igo dela eta Xabier Aranburu udal museologoaren esanetan konfirmatu egiten da Aste Santukoa barruko turismoa, hau da, Euskal Herrikoa, dela Bergaran ibiltzen dena. Esaterako, aurten egin diren 326 kontsultetatik 55 bergararrenak izan dira eta beste 138 Bergaratik kanpoko euskalherritarrenak. Argi dago, beraz, bergararrek erabiltzen dutela Turismo Bulegoa.



Aurtengo Aste Santuan 10 bisita gidatu antolatu dira.

Bestalde, Euskal Herritik kanpokoen artean, aurten ere katalanak izan dira kontsulta gehien egin dituztenak (56 kontsulta); 23 Madrilgoak izan dira eta 35 estatuko beste toki batzuetakoak. 19 Europatik etorritakoenak izan dira eta horien artean, 7 frantziarrenak eta 5 alemanenak. Aurten gora egin du madrildarren kontsulta kopuruak. Igoera horren arrazoia su-etena da Xabier Aranbururen iritziz.

Esan behar da, bestalde, aurten 10 bisita gidatu antolatu direla eta bertan 71 lagunek hartu dutela parte eta 14 kontsulta jaso direla herriko jatetxeei buruzko informazioa eskatzeko 40 pertsonaren izenean. Uda partean, ekainaren 25etik irailaren 5era arte zabalduko da Turismo Bulegoa.

**TURISMO SEINALIZAZIOA**

Bestalde, hasi dira herrian seinalizazio egokia jartzeko lanak. Herriko sarreretan lau panel handi jarriko dira: Osintxuko bariantean, Uberan, Ola inguruan eta Aseginolaza tailerraren ondoan, Antzuolatik Bergarara bidean. Bestalde, herrian bertan ere monumentu garrantzitsuenak seinalizatuko dira eta, horrez gain, zirkulazio seinaleak ere jarriko dira. Guztira 70 bat seinal jarriko dira. Aurrekontua 11,5 milioi pezetakoa da eta Jaurlaritzak 3,5 milioi eman ditu.




San Martin plazan jende ugari bildu zen bakearen aldeko kontzentrazioan.

## Lizarra-Garazikoek deitutako lanuzteak erabateko erantzuna

**Lizarra-Garaziko** Akordioa sinatu zuten indar politiko, sindikatu eta herri mugimenduek astelehenerako deitutako ordubeteko lanuzteak erabateko erantzuna izan zuen Bergaran.

Herriko enpresa, lantoki, ikastetxe, taberna eta denda ia guztiek lanuztea egin zuten, baita Udaleko langileek ere. San Martin plazan, Osintxun eta hainbat industria gunetan kontzentrazioak egin ziren eguerdiko 12etatik ordubata arte. Kontzentraziorik jendetsuena San Martin plazan, Udaletxe aurrean egin zen. Bertan, alkateak eta hainbat zinegotzik hartu zuten parte eta Fermin Mendizabal Gipuzkoako Merkataritza Ganbarako presidentea ere ikusi genuen. Bestalde, hainbat enpresatan lanuztea ordubete aurreratu zuten, Mayc-en esaterako.



Aspalditik ari dira Santa Marinan erretaula nagusiaren konponketa lanetan eta datorren urtera arte ez dute bukatuko.

# Santa Marinako erretaulari eusteko 14,5 milioi pezeta

## Lehen faseko lanak ekainean amaituko dira

**Santa Marinako** erretaula nagusia, 24,80 metroko altuera duena, paretara eusteko 14,5 milioi pezeta bideratuko dira. Lanak aurrera doaz eta lehen fasea ekainerako amaitzea espero da.

Santa Marinako parrokiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru laguntza jaso du lanen lehen fase honetarako. Hain zuzen ere, aurrekontu osoaren %60 ordainduko du Diputazioak.

Joan zen udazkenean konturatu ziren Miguel Irazusta arkitektoak egindako Santa Marinako erretaula barrokoa paretatik mugituta zegoela eta behera etortzeko arriskuan zegoela. Hori dela eta, erretaularen barneko egitura paretari eusteko lanetan dihardute.

Ondoren, eliza osoaren argiteria eta berogailu sistema berriztuko dira, eta koroa eta organoa garbituko dira.

Lan hauek guztiak amaitu ostean, erretaulako irudiak, Carmona maisuarenak, garbituko dira. Sitsaren kontrako neurriak hartu eta irudien barnizak eta pinturak garbituko dituzte. Erretaularen egurrezko beste elementu guztiak ere sitsaren kontra tratatuko dira. Azken fasean, erretaula nagusiko egitura eusten duten mentsulak indartuko dira. Lan hauek denak datorren urtera arte luzatuko dira.

## Beste sei ugaztun ale Errege Mintegiko Zoologia sailerako

**Errege Mintegiko** zoologia sailerako sei aleren dohaintza onartu zuen Udalbatzak astelehenean aho batez. Hain zuzen ere, Zumaiako Natura Taldeak emandako bost pieza eta Maria Eulalia Barrutia Mendizabal bergarararrak egindako beste pieza baten dohaintza da astelehenean Plenoan onartu zena. Zumaiako Natura Taldeak 1997 eta 1998an Getarian eta Zarautzen hilik aurkitutako ondorengo bost hegaztiak eman ditu: abozeta bat, aliota artiko bat, antzandobi arrunt bat, mendebal-txori bat eta pottorro arrunt bat. Maria Eulalia Barrutiak, berriz, Ibargarai kalean aurkitutako txio arrunt bat.

Errege Mintegiko Zoologia saila bi azpi-sailetan banatzen da: bilduma historikoa eta bilduma berria. Azken honen helburua, Euskal Herriko ugaztunen erakusketa errepresentatiboa osatzea da. Ugaztunen erakusketa hau sarrera berriez antolatzen ari dira eta sei pieza berri hauen dohaintzak Zoologia saileko ugaztunen azpi-saila osatzeko balio izango du.

etxalar
kafetegia
kruasantegia
Boni Laskurain 4
943 76 50 68

TOLDOS LETE C/B
Egintza
Konponketa
Alokairua
Balkoia
Terrazak...
Erabilera guztietarako olanak
Kataide poligonoa, 14 pabilioia, Musakola auzoa. ARRASATE. Tf. 943 79 23 83

MUJIKA
Jantzidenda
Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

# Martinez Irala ikastetxeko jolastokia konponduko dute

**Asteleheneko Plenoan** aho batez onartu ziren, alde batetik, Martinez Irala eskolako jolastokia asfaltatzeko gastu proposamena eta oinarri administratibo partikularren plegua, eta, bestetik, Agorrosingo igerilekuen mantenimenduaren adjudikazioa arautuko duten baldintza plegua.


Martinez Iralako jolastokian asfaltua botako dute.

Martinez Iralako jolastokian (Aranzadi Ikastolak erabiltzen duena) asfaltua botatzeko obrak 3 milioi eta erdiko aurrekontua du eta lanak amaitzeko epea 30 egunekoa izango da.

Bestalde, Agorrosingo igerilekuetako mentenimendu zerbitzua asteburuetan, jai egunetan eta premia dagoenean eskatzen zaionean, kontratatzeko deialdi publikoa egin du Udalak. Filtroak garbitu, deposito mailak egiaztatu, kloro eta Ph neurketak egin eta instalazioak jasan ditzakeen matxura eta akats puntualak zaindu eta konpontzea izango da, besteak beste, zerbitzua hartzen duenaren ardura.

## Gipuzkoako Odol Emaleen Elkartearen batzarra Arantzazun

**Gipuzkoako Odol** Emaleen Elkarteak urteko batzar orokorra egingo du maiatzaren 2an Arantzazun. Eguerdiko 12etan Meza Nagusia izango da Arantzazuko basilikan; 13:00etan, insignia eta diplomak banatuko zaizkie 25 eta 50 odol ateraldi izan dituztenei eta 14:30etan bazkaria izango da Ostatuan. Bergarako Odol Emaleen Elkarteak autobusa jarri du eta autobuserako zein bazkarirako txartela 2.700 pezetaren truke eskuratu daiteke San Antonioko Agirrebeña oinetako dendan (943 76 18 29) eta Barrenkaleko Puy farmazian (943 76 16 87).

50 odol ateraldi egiteagatik urrezko domina jasoko duten bergarar eta antzuolarrak honako hauek dira: Julian Aranburu Azpiazu bergararra, eta Pablo Hernando Martin, Juan Miguel Lizarralde Lezeta eta Pedro Jose Zabaleta Lizarralde antzuolarrak.

## Langabetuei laguntzeko diru batzea Caritasek

**Lanik ez dutenei** laguntzeko kanpaina jarri du abian Caritasek. "Zein da lanpostu baten prezioa? Premia berezien alde" da kanpainaren leloa. Herritarren laguntza jasotzeko, Caritasek diru bilketa egingo du Parrokietan asteburu honetan; bestalde, Caritasera zuzenduz ere laguntzeko aukera badago, zenbaki honetako Kutxako kontu korrontean: 2101 0070 83 00 10444586.

## Liburuaren egunean, Udal liburutegia San Martin plazan

**Datorren** eguakitzean, apirilak 23, liburuaren nazioarteko eguna dela eta, Udal liburutegia kalera aterako da. Mila Agirrezabal Udal liburutegiko arduradunak esan digunez, pare bat mahai jarriko dituzte Udaletxeko arkupetan. Bertan, besteak beste, liburuak, egunkariak, aldizkariak eta diskoak izango dituzte ikusgai. 11:00etatik, 13:00ak arte eta 17:00etatik, 20:00etara izango dira.

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
Biona BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

# Berrigara

363 zenbakia.
1999ko apirilaren 16a.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Eneko Azkarate, Edu Mendibil, Aitziber Azkondo.
**Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Uxue Zabaleta.
**Harpidetza:** Itziar Kortabarria.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien, Mirari Alberdi, Maripi Laskurain.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza.
**Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Kaibide.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Erakunde hauen laguntzaz:**

**Bergarako Udala** · **Gipuzkoako Foru Aldundia** · **Eusko Jaurlaritzako Kultura saila**

## gutunak

*Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.*

### HILTZEKO TRESNAK

"Desarma itzazu zure zergak" dinoen esaldixa agertzen da Gipuzkoako Eragozpen Fiskaleko Asanbladak atera berri daben liburuxkaren azalean. Argi dago munduko egoeria ez dela batere ona, beste gauza batzuen artean, ikusi zenbat txanpon gastatzen dittugun hiltzeko-tresnak egiten.

Esaten doskue "defentsarako" direla, baina ondo ikusten da zer defendatzen daben. Honen inguruan dantzan dagozen sosak eta interesak imajinaezinak dira, eta merkatuaren legearen arabera biltegiak ezin die beteta egon; nola edo hala, egindakoa saldu egin behar da.

Gertatzen dena zera da: kasu honetan saltzen dena kalte handia egiten daben zerbaitt da. Negozio erraldoi honen adibide asko daukagu gure inguruan. Ezagunak dien pare bat esaldiri aldaketa batzuk egingo dotset gonbidapen bat egiteko. Lehenengoa, "Garrantzitsuegia da gure etorkizuna, politiko, aberats eta militarren eskuetan lagatzeko". Askotan euron interesak eta pertsona arruntenak guztiz kontrajarriak die, adibidez "defentsa" gaietan, eta bigarrena, "deitu, eskatu informazioa eta egin Eragozpen Fiskala". Animatu zaittez.

Hona hemen bi helbide:

Gipuzkoako Eragozpen Fiskaleko Taldea. 1330PK. 20080 Donostia.

KEM-MOC. Segundo Ispizua, 30. 1A. Gros. Donostia (zapatuetan 11etatik 13:30etara egongo die. Telefonoa: 943 32 02 92).

*Xabier Azkarate*

### ARANZADIKO DBH ETA DBHO-KO IKASLEEI

Agur t'erdi!

"Bergara ezagutzen" lehiaketan parte hartu duten gure DBH eta DBHOko ikasle guztiei luzatu nahi diegu gure zorionik beroena izan duten partehartzeagatik, batetik, eta lortu dituzten emaitzengatik, bestetik.

Emaitza hauen atzetik saiatze eta ardura bat dagoelako, eta herriarekiko erakutsitako maitasunagatik har ezazue Aranzadi ikastolako zuzendaritzaren eskerrik eta zorionik beroena.

Jarrai bide horri!

*Aranzadi Ikastola*

## tira biraka: gorka ortega & jon alvarez



atrebentzia ezpada

## NATO erakundiak Serbia bonbardeatzia erabaki egokixa izan dela uste dozu?



**Ramon Garcia**

Hainbat herrialdek hartutako erabakia izan denez, baiez uste dut. Aurreko bide guztiak agortu dituzte, Milosevicek negoziatzerik nahi izan ez duelako.



**Sabin Zelaia**

Egixa izan ez daukat argi asunto guzti hori, telebisiñotik be ez dot jarraitu eta ez nuke iritzirik emongo ez dittudalako bonbardeaketaren arrazoiak ezagutzen.



**Gloria Roca**

Ez nago NATOrekin ados. Bonbardeaketa *amerikanada* izan da. Hori baino konponbide egokiagoak badaudela uste dut baina Estatu Batuek agintzen dutenez...



**Jose Mari Zamarbide**

Nik uste dot bonbardeaketa ez dela neurri egokia. Beste modu batez konpondu zitekeen konfliktoa baina ez du konponbide erreza, aspaldiko datorren arazoa da eta.



**Mari Karmen Larrañaga**

Ez. Etnia baten desagerpena ebitatzeko hartutako neurria ei da baina ez dakit hori bera lortu duten... ONU eta bestelako erakundeen iritzia jakin nahi nuke.



**Feli Landa**

Gerria gerrian gainean, gaizki. Ahal baldin bada hitzegin da konpontzea, hori onena. Zer da hobea, bonbardeaketa edo orain pasatzen ari direna?

bai, esan!

*Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi izanez gero, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu bariko mezurik ez da onartuko.*

### ZORIONAK FORUM CINEMATOGRAPHERI

**Jon Garate** eibartar gazteak deitu zigun eguakitzean BERRIGARAra, Forum Cinematographe taldea zoriontzeko asmoz. Jonek eskerrak eman nahi dizkie Forumeko lagunei pelikula zaharrak zinean ikusteko aukera emateagatik. Egunkarian joan zen astean igarritako "La tentacion vive arriba" filmearen emanaldiaren berri izan ondoren, eguenean Bergarara etorri zen lagun batekin. Jonek esan zigunez, horrelako pelikula zaharrak jatorrizko bertsioan eta zinean ikusteko aukera gutxi dago, hiri handietan bakarrik, eta benetan txalotzekoa iruditzen zaio Forumek 1950ko hamarkadako komedien ziklo bat programatzea.

ikuspuntua: **arantza odriozola**

## *Lanpostu baten prezioa?*

Gipuzkoan 1998an 146 milioi pezeta jaso ziren premia berezietarako Caritasen kanpainan; gastatu 198; beraz, 52 milioitako defizita geratu da. Hona nola banatu ziren gastuak: langabeziagatik premian diren familien laguntzan 86 milioi; 51, enplegu sustapenean eta sorkuntzan; eta 54, toxikomanoen laguntzan eta marginazioaren aurka.

Oraingo kanpaina langabeziaz arduratuko da. Denok dugu lanik egin ezin duten pertsonekin topo egiteko aukera eta honek dakartzan arazoak ezagutzekoa, bai beraientzat, bai beraien familientzat ere.



EUSTATen datuen arabera, 1998ko laugarren hiruhilabetean Gipuzkoan langabeak biztanleria aktiboaren %14,1 ziren: 44.400 langabetu.

Kanpaina honek gizarte-kontzientzia ernai edukitzea bultzatzen du. Gizakoia eta kristaua den ikuspegi honetatik, lagundu eta bultzatu beharrekoak dira bai herri-administrazioak eta bai hainbat gizarte-taldek lanpostuen sorrera sustatzeko egiten dituzten ahaleginak. Lan-eskubidea gizakiaren oinarrizko eskubideetakoa bada, zerbait eragin-korra egin beharko du gizarteak eskubide hori gauzatu dadin.

Caritasek lagundu egin nahi die egoera okerrean daudenei "lan-merkatuaren" lehiarako: gizarte-marginazioagatik edo antzeko arrazoiengatik prestakuntzarik ez dutenei.

Ez da lanbiderako trebaketa hutsa helburua, baita duintasuna eta pertsona-berregituraketa eskuratzea ere. Honek eskatzen duena zera da: pertsonen berezitasuna kontutan edukitzea eta baliabide materialak edukitzea bidea egokitasun osoz eraikitzeko.

Caritasek denon laguntza behar du; aurtengo leloak dio lanpostu bakoitzaren prezioa zuen laguntza dela! ■

■ asteko menua: **panaderokua jatetxea**

# Alkatxofa beteak



KONTXI IDIGORAS
*Panaderokua Jatetxekoa*

**OSAGAIAK (4 lagunendako)**

- 4 alkatxofa
- Maicena goilarakada bat
- Koñak kopa bat
- Irina
- Arrautza bat
- Ogi birrindua

BETETZEKO:

- Kipula bat
- Porru bat
- Piper berde bat
- 100 gramo ganba egosi
- 200 gramo atun

**PRESTAKETA**

- Osagarri guztiak, hau da, kipula, porrua, piper berdea, ganbak eta atuna zati finetan txiki-txiki egin eta oliotan su bajuan sueztitu.
- Ondoren, Maicena goilarakada bat eta kopa erdi koñak gehitu.
- Osagai guztiak egosten eduki, ganben salda apur bat gehitu eta irakin arte eduki.
- Alkatxofak hustu eta betegarriekin bete.
- Irin, arrautza eta ogi birrinduarekin nahastu eta frijitu.
- Mahaira ateratzeko, tomate saltsarekin, saltsa amerikarrararekin edo bexamel arin batekin lagundu daiteke.

■ adituen esanetan

# Animalien depresioa

HUMBERTO NOGUEIRA, *albaitaria*

Etxeko animaliei ere depresioak afektatzen die zenbaitetan. Txakurren eta katuen artean gero eta depresio kasu gehiago ematen dira. Depresioa agertzeko faktore asko izan daitezke: jabeak animalia abandonaturik lagatzea, animaliak etxean pertsonaren bat faltan botatzea (kanpoan ikasten ari den ikaslea esate baterako), ohitura batzuk galtzea edo, ile luzea duten katuetan eman den dezala, lehendabiziko ile-mozketa. Ondorioz, depresioaren ohizko sintomak agertzen dira: tristura, apatia, gogogabetasuna, jateko gogorik ez dute izaten... Katu maitekorrak ere zaputzak bihurtzen dira eta txakurren kasuan, berriz, jabeari kaso gutxi egiten diote eta gogoa beste inon daukate.

Depresio kasu hauek ez dira larriak baina tratatu egin behar dira, kontrako kasuan gaisotasun fisikoren bat edo desoreka psikologikoren bat ekar dezaketelako atzetik. Animalia berriro ez errekuperatzeko arriskua ere hor dago eta, horrelakoetan, oso agresiboak bihurtzen dira. Dena den, orain arte tratamendurik egon ez bada ere (egoera ondo bideratzea zen aukera bakarra), gaur egun gizakien tratamenduan erabilitako ansiolitikoak eta antidepresiboak erabiltzen dira eta emaitza onak lortzen dira. ■

■ bergarako gordailutik

## ERRETAKO ETXEEI BURUZKO ANAIDIA

**Imanol Sorondo**

Antzinatik izan dira elkarteak eta hermandadeak gure artean eta gai eta arlo askotakoak: erlijiosoak, sozialak, politikoak, ofizio eta lantegietakoak... Gaur ipiniko dugunarena erretako etxeei zegokiena zen.

Gogora dezagun etxe asko zurezkoak zirela. Organizazioari, araudiari eta elkarte sendo eta iraunkor bati begiratzen badiogu, berria sortu zela aitortu behar; baina bazeukan lehendik oinarri bat, ohitura bat; honela, Zabalatar Bernardinok, Malatuako baserri errea berriro altxatu nahian, Elkoro eta beste mendi batzuetatik haritzak hartzeko baimena eskatu zion Udaletxeari, aspaldiko ohiturari jarraituz; 24 hartzeko baimena jaso zuen.

Elkorobarrutiatar Martin Perez alkatea da 1657. urtean eta Udaletxean batzarra egiteko deia egin du. Han daude Olariagatar Juan iskribaua eta lekuko gehiago ere. Beti erre izan omen direla etxe asko diote batzartuak; berriro altxatu omen dituztela erretako batzuk; beste batzuk berriz ez, diru eskasiagatik; izan omen dira zorpean gelditu direnak ere.

Arrazoi hauengatik Elkarte edo Anaidi bat sortzea erabaki dute. Hortik aurrera harpidedun bakoitzak dukat bat eta erdi emango dizkio baserria erre zaion nagusiari bi hilabeteren barruan. Modu horretara 300 bat dukat jasoko direla iruditzen zaie, eta nagusiak ausartuko direla baserriak berriro jasotzera. Antzuolan eta inguruetan baserriak zeuzkaten nagusi bergararrak ere sartu zitezkeen. Beranduago, 1750. urtean, Berroetatar Joakin sartu zen; 41 baserri zeuzkan Zumarraga, Zerain, Tolosa, Azkoiti, Azpeiti eta beste toki batzuetan. ■



# Erreprublikako ikurriña

**Eguaztenean**, apirilaren 14an, **68 urte** bete ziren **Bigarren Errepublika** Eibarren aldarrikatu zenetik. Bergaran ere zenbaitzuk fetxa hori gogoratzeko ohitura daukate. Goiko argazkia eguaztenean bertan aterata dago. Errepublikaren aldekoek apirilaren 14a heltzen den bakoitzean Errepublikako ikurriña jartzen dute Fraiskozuriko **Martinez Irala**ren omenezko monolitoan.



# 13ko kiniela asmatu

Arrasatearra tabernako **Elisabeth Sotosek eta Jose Solaun** lagunak **13ko kiniela** asmatu zuten domekan. Huts bakarra egin zuten, Sporting-Compostela partiduan hain zuzen: X zeinua jarri zuten boletoan baina asturiarrak 3 eta 1eko emaitzarekin nagusitu ziren azken minutuetan. 43 milioi eskuratzeko gertu egon ziren baina pozik dira irabazitako **1.258.000 pezeta-ko sariarekin**. Astelehenean bertan dirua jaso eta bazkari eder batekin ospatu zuten. Astero-astero elkarrekin kiniela egiten dute Elisabethek eta Josek eta 200 pezeta besterik ez dute jokatzen. Hori bai inbertsio ona!!

# *Urrezko ezteiak*

**Abdon Egia eta Matilde Quintana** senar-emazte bergararrek beraien ezkontzaren **urrezko ezteiak** beteko dituzte domekan, **apirilaren 18an**. Matildek eta Abdonek elkarri baietza eman zioten 1949ko apirilaren 18an, San Pedro parrokian, eta elkarrekin igarotako urteak ospatzeko senideekin bilduko dira igandean. San Pedron meza entzun ondoren, bazkaria izango dute eta han izango dira, besteak beste, bi alabak eta hauek eman dizkieten hiru bilobak. Zorionak bikote!!





# Zaborrak etxe atzealdean

Peruldeko zubitik gertuen dauden **Boluko etxeetako bizilagunak** kezkatuta azaldu dira azkenaldian, etxe azpian pilatuta zegoen **zabor piloa** zela eta. Bizilagunen batek lagatakoak edo botatakoak zirela pentsatu eta Udaltzaingoa jakinaren gainean jarri zuten. Halere, udaltzainek egindako ikerketaren arabera, txakurren batek zaborrak lagatzen diren lekutik bertara eraman eta zabaldu dituela uste da. Udaltzainek ez dute txakurra topatu, baina zaborrak kendu eta ingurua txukun laga dute.

# Txandakako enpresa injinerutza

**Enpresariekin lanean garatutako lanbide proiektua.**
**Lan kontratua lehen egunetik.**

*Matrikulazio epea zabalik*

Datorren **apirilaren 19tik maiatzaren 26ra** arte, Txandakako Enpresa Injinerutzako sarrera-probetarako matrikulazio epea zabalik egongo da.

Probak maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean egingo dira IMHko instalazioetan.

**1999/2000 ikasturtea**

- **Makina Erremintaren Institutua**
  San Roke auzoa 1
  20870 Elgoibar
- Tf. 943 74 41 32
  Faxa: 943 74 41 53
  E-mail: ingenieria@fmh.es
- Ordutegia:
  8:00etatik 13:00etara
  eta 14:30etatik 17:30etara

MAKINA ERREMINTAREN INSTITUTUA

cesi aquitaine poitou-charentes



# kontuola...

**KONTUOLA, Idolaz elkartea, ANTZUOLA. Kazetaria**: Marijo Deogracias **Maketazioa:** Iñaki Iturbe **Publizitatea:** Uxue Zabaleta **Erredakzio kontseilua**: Miren Anduaga, Gotzon Iparragirre, Patxi Kortabarria, Jone Larrañaga **Testuen zuzenketak**: Maripi Laskurain, Lierni Legorburu **Telefonoa eta faxa:** 943 76 65 08, Herri ikastetxea.

*Antzuolako hamabostekaria, 35 zenbakia. 1999ko apirilaren 16a.*

# 480,5 milioiko aurrekontua Udalak

## 1999ko aurrekontu zehatza 480.572.131 PTA-koa da

**Joan zen martxoaren 30eko Udal Batzarrean onartu zuten, Zutik eta HBren kontrako botoekin, 1999rako aurrekontua. Guztira 480.572.131 PTA-ko aurrekontua da, baina honi Antzuolako Udal Etxegintza proiektuaren 86.400.000 PTA gehitu behar zaizkio. Urtero legez Hirigintza batzordea izango da diru gehien izango duen batzordea. Aurten 164.276.003 PTA, hain zuzen ere.**

Alde sei eta kontra lau boto izan zituen Alkateak Udal Batzarrean 1999rako aurkeztu zuen aurrekontuak. Iaz baino 242.138.154 PTA gehiago. Eta igoera nabarmenena hirigintzan somatu da. Izan ere, batzorde honek lan ugari egiteko asmoa dauka aurten. Legealdi honetako azken aurrekontuaren arabera, Gizarte Etxea, Udalak bultzatutako etxebizitzen lehen lanak, Olarango etxea berriztea eta Kalebarrengo zubia zabaltzea aurreikusi dira, besteak beste. Mikel Larrea alkateak adierazi digunez, "Gipuzkoako udalen ogasunen testuinguruan, Antzuolako Udalaren ogasuneko ekonomi egoera onargarria da, neurri handi batean dirusarrera arruntek gastu arruntak gainditzen dituzte eta, %20 batean".

**INBERTSIOAK**

Etxebizitza eta Hirigintza batzordera bideratutako diru partida da aurrekontuen artean adierazgarriena, 164.276.003 PTA. Diru honetatik zatirik handiena, 60 milioi, 30. arearen urbanizaziorako izango da. Izan ere, Udalak berak bultzatutako etxebizitzekin hasi nahi du.





*110 milioi pezeta inbertituko dira Gizarte Etxea konpontzeko.*

Pilotalekuaren inguruko urbanizazioak, bestalde, 45 milioi PTA-ko aurrekontua dauka. Aiherra kalearen jarraipena eta txukuntzea aurreikusten dira hemen. Lanekin jarraituz, aipatzekoa da Kalebarrengo zubia zabaltzeak ere 9 milioi PTA-ko aurrekontua izango duela.

Herrian dauden beste bi proiektu handiri ere helduko die Udalak aurten. Batetik Maristetako egoitzan izango den Gizarte Etxea daukagu. Proiektu honek 160 milioi PTA-ko aurrekontua dauka, 110 aurten eta beste zatia 2000.ean.

Bestetik, Olarango etxea dago. Hemen ere berrizte lanak egingo dira eta horretarako 30 milioi onartu ziren martxoko azken Udal Batzarrean.

**KIROL INSTALAZIOAK**
Estalako futbol zelaian konpontze lan bat baino gehiago egin da eraiki zenetik. Baina oraindik ere arazoak ematen jarraitzen du. Horregatik, aurtengo aurrekontuan 9 milioi PTA onartu dira futbol zelaia hobetzeko. Aldi berean, Udalak ez du baztertu igerilekuen proiektua. Hori dela eta, modurik bideragarriena zein den jakin nahian, milioi erdiko aurrekontua onartu du igerilekuari buruzko ikerketa bat egiteko.




**1999ko aurrekontuak 30 milioi pezeta onartu ditu Olarango etxea berrizteko**

# Patxi etxean



**Joan zen zapatuan** aske gelditu zen Patxi Olabarria. Goizeko 11:30etan iritsi zen herriko plazara. Hiru urte eta erdi eman ditu espetxean eta hiru espetxetan egon da. Azkenengo hilabeteak Martutenen egin ditu. Urduri ageri zen elizpeko eskailerak igo zituenean. Izan ere, plazan antzuolar asko elkartu zen. Baina tartean baziren Bergara, Oñati, Arrasate eta beste hainbat herritatik etorritako lagunak ere. Guztiek egon nahi izan zuten Patxiren ongi etorrian. Une hunkigarriak bizi izan ziren eta Gestorak, Gaztetxeak, HBk, bere koadrilak, Sarriegi Taldiak eta herriko beste bi presoen senideek, besteak beste, opariak eman zizkiotenean, ezin izan zuen urduritasuna izkutatu.

Datorren zapatuan, apirilak 17, ongi etorri bazkaria egingo da pilotalekuan. Bazkaria 14:00etan izango da.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA

igor eta Txomin
Pintura orokorrean.
Paper, tela, binilo, kortxozko... estaldurak.
Gotelesa, iztukuak eta
bestelako imitazioak.
ANTZUOLA ☎ 943 76 60 39
BERGARA ☎ 943 76 19 98

EGAÑA
Era guztietako arotz lanak
Tarima eta parketa jartzea
Zoruen kutxilatu eta barnizatuak
Kalegoi 21, ANTZUOLA Tf.: 943 76 64 23

# Medikuaren kontsultarako aldez aurretik txanda eskatzea

**Joan zen asteko** martitzenetik medikuarengana joateko aurrez txanda hartu behar da. Osakidetzak aspalditxo jarri zuen martxan osasun zentro guztietan neurri hau, baina Antzuolan, Elgetan bezala, ez da oraintsu arte hasi. Gu Luis Bastidarekin, herriko sendagilearekin, berbetan aritu gara modu berri honek nola funtzionatzen duen hobeto jakiteko.

Hiru telefono zenbaki egongo dira txanda hartzeko, eta hobeto funtzionatzeko ordutegi jakin bat ere egongo da. Dena dela, horrek ez du esan nahi ezingo denik ordutegi horretatik kanpo deitu edo txandarik gabe joan mediku edo praktikantearengana. Luisek azaldu digunez, "sistema honekin kanpoan egiten diren ilarak saihestu nahi dira neurri batean, horregatik gomendatzen da etorri aurretik txanda hartzea". Hala ere, Luisek badaki hasiera batean ez dela horren erraza izango. "Kontua ez da aldez aurretik jakitea hurrengo egunean gaixorik egongo garen, baizik eta gaizki sentitzen baldin bagara eta hurrengo egunean medikuarengana joatea erabakitzen baldin badugu, orduan txanda hartzea, horrela ez baitugu denbora larregi itxaron beharko".

Aldez aurreko txandak modu neurtu batean emango dira eta horrek medikuari aukerak eskainiko dizkio, batetik etxeetan egiten dituen bisitak egiten jarraitzeko eta bestetik txandarik gabe agertzen den jendeaz arduratzeko.

**TELEFONOAK ETA ORDUTEGIA**

Hiru telefono zenbaki jarri ditu Osakidetzak, aldez aurretik txanda hartzeko: 943 76 24 40, 943 76 24 41 eta 943 76 10 82. Deitzeko ordutegia eguerdiko 14:00etatik arratsaldeko 17:00ak arte izango da. "Ordutegi hau Bergarako anbulatorioan lan gutxiago dagoelako hautatu da, honela deiak hobeto hartu ahal izango direlako. Dena dela, argi laga nahi dut ordutegi horretatik kanpo deitzeko arazorik ez dagoela".

Txanda eskatzerakoan deitzen duenari hainbat galdera egingo dizkiote anbulatorioan. "Horrela niregana etortzen direnean, neurri batean, zergatik datorren jakingo dut eta hainbat kasutan, hala nola gaixo kronikoetan, bere fitxa ere prest eduki ahal izango dut".

**PRAKTIKANTEAK ERE BAI**

Josetxo Goiburu praktikanteak ere aldez aurretik hartutako txandarekin lan egingo du. Hemendik aurrera errezeta bila joateko ere aldez aurretik deitu beharko da goian aipatutako zenbakietara. Gaixo kronikoei hiru hilabeterako botiken errezetak emango dizkie, gauzak errazte aldera.



*Luis Bastida goizeko 10etan hasten da astelehen eta ostiraletan anbulategian.*

## MOTZIAN

### SOROSLE IKASTAROA

Deba Garaiko DYAk sorosle ikastaroa antolatu du apirilaren 19tik maiatzaren 14a arte. Ikastaroa Bergarako kultur etxean izango da egunero 19:30etatik 21:00era bitartean. Informazio gehiago honako telefono hauetan: 943 46 46 22 (egoitza zentrala) edo 943 78 71 57 (Antzuolako ordezkaritza).

### MENDI IRTEERA

Madarixa-Xoxote eta Arrate-Urko dira Arrolak antolatu dituen hurrengo bi mendi irteerak. Lehenengoa igande honetan izango da, goizeko 08:30etan. Bigarrena, berriz, apirilaren 18an izango da eta izena emateko, Arrolaren egoitzara jo beharko da apirilaren 19an, astelehena, arratsaldeko 19:30etatik 20:30etara.

### ONDAREA ZAHARBERRITUZ

Antzuolako Udalak ondarea zaharberritzeko ematen dituen dirulaguntzak eskatzeko izen ematea zabalik dago. Eskabideak, behar bezala beteta, Udaletxean aurkeztu daitezke. Onuradunak lanen fakturak aurkeztu beharko ditu abenduaren 15erako eta horien arabera jasoko du dirulaguntza.

GOROSTI
Taberna
☎ 943 76 62 96
Zurrategi plaza ANTZUOLA



Zabalo Iturgintza S.L.
Bidea eginez
Tailerra: Uzarraga bidea 10. Tf. 943 78 71 78
Erakusketa: Kalebarren 1. Tf. 943 78 71 79, Tf. eta F. 943 76 64 73
•Gasa
•Berogailuak
•Haize egokitua
•Enpresen mantenimendua
•Lurrun instalazioak
•Bero-aurreztea
•Bainugelak. Proiektuak momentuan egiten ditugu DIBAren bidez
•Birgaitze-espedienteak bideratzen ditugu

# Hamaikagarren Korrika arrakastatsua

## 292.445 pezeta jaso ziren herrian

**"Bat eta bat hamaika**, zu eta ni euskaraz" izan da aurtengo Korrikaren leloa. Antzuolatik Donostiara bidean pasatu zen, martxoaren 24an. Jendetza handia egon zen zain. AEKk aurreko egunetan saldu zen materialarekin 31.600 PTA jaso zituen eta kuestazioarekin, berriz, 20.845 PTA.

Baina jakingo duzuenez, Korrika kilometroak erosten egiten da eta Antzuolak sei kilometro erosi zituen. Bakoitza 40.000 PTA kostatzen zela kontuan izanik, guztira 240.000 PTA jaso ziren. Erosleak herriko enpresak, Elayko langileak eta Udala izan ziren: Elay Taldea (3), Elayko langileak (1), Goizper (1) eta Udala (1).

Bergara eta Antzuolako mugaren artean lekukoa AEKren ordezkariak, Aitziber Aretxagak, hartu zuen. Gero Jesus Kortabarria Kaxetak eta Joseba Garitanok eskuratu zuten. Honek Mikel Larrea alkateari eman beharrean, Aitor Gabilondori eman zion. Horixe izan zen gaueko unerik umoretsuena. Korrikako furgonetan zihoanak alkatea animatu nahi eta hau lekuko barik. Azkenean, ordea, Aitorrek lekukoa eman zion alkateari eta honek Antigua auzoan itzuli zion.

Azkenengo km-ak Aitor Peña eta Andres Arbuluren artean egin behar izan zituzten. Deskarga gainera antxitxika joateko asmotan zirenak furgonetara igotzen amaitu zuten eta.

**ESKER ONA**

Deba Garaiko AEKk, bestalde, eskerrak eman nahi izan die Korrikan parte hartu zuten euskaltzale guztiei. Euren esanetan, "lasterketa zaratatsua eta jendetsua izan genuen, bai goizeko korrika txikian eta baita gauerdian heldutako Korrika 11n ere. Eta hau guztia, denok batu garelako euskararen alde eta elkarrekin gure herrian euskararen aldeko konpromisoa dugula erakutsi nahi izan dugulako. Berriz ere esker bero-bero bat Antzuolako herriari, portau zate eta!".




*Joseba Garitano plazara iristen.*



## Aberri Eguna jendetsua izan zen Antzuolan

**Euskal Herriko** beste herri askotan bezala, Antzuolan ere Lizarra-Garaziko akordioaren sinatzaileek Aberri Eguna ospatzeko egindako deia jendetsua izan zen.

EAJ, HB eta Zutik alderdietako udal ordezkariek elkarrekin sinatutako dokumentua irakurri zuten eta ondoren dantzariak irten ziren. Txistularien soinuari jarraituz dantzariek ikurrina osatu zuten plaza erdian.

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Apainketarako eta industriarako pinturak •
• Paper margotuak •
• Moketak eta tapizatuak •

GAILUR
taberna eta
gozotegia

Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tf. 943 78 70 32

ANTZUOLA
Apainketak eta
isolamenduak
•
Pladurrezko dibisioak
Kalegoi 21 ANTZUOLA
Tf.: 943 72 30 05
Biltegia: 943 78 70 40

KALEGOI 19 ☎ 943 76 64 07
Tomas Gezalaga
ANTZUOLA BERGARA
• Zoruen kutxilatu eta
barnizaketa •

# Eibar-Gasteiz autopista: maiatzean hasiko dira lanak




Eibar-Gasteiz autopistaren inguruko erakusketa apirilaren 25era arte zabalik izango da Udaletxeko batzorde gelan. Autopistaren ibilbidea azaltzen duen maketa bat, panel informatiboak eta hiru tramoen informazioa eskaintzen duen bideo bat ikusgai daude.

**Astelehenean Gasteiz-Eibar autopistaren inguruko erakusketa ibiltaria zabaldu zen Beragarko Udaletxeko batzorde gelan. Bertan, besteak beste, Antton Jaime Diputazioko Garraio eta Errepideetako diputatua, Jose Mari Sarasola Errepideetako Zuzendari Nagusia eta Victoriano Gallastegi alkatea ere izan ziren. Antton Jaimek azaldu zuenez, Bergara hegoaldea eta Sagarrerreka (Soraluze) bitarteko tramoko obrak adjudikatuta daude dagoeneko eta datorren maiatz erdialdera hasiko dira lanak.**

Asteleheneko aurkezpenean emandako datuen arabera Bergara hegoaldea eta Maltzaga bitarteko tramoa 2002. urte amaierarako trafikora zabaltzeko asmoa dago. Deba bailaran Gipuzkoako industria jarduera garrantzitsuenetakoa biltzean, Diputazioko arduradunek Eibar-Gasteiz autopista ekonomiaren bultzatzaileetzat jotzen dute, autopista komunikazio ardatz nagusiekiko lotura izango delako. Autopistak 46,2 kilometroko ibilbidea izango du, horietako 31,9 Gipuzkoako lurraldean eta gainontzeko 14,3 kilometroak Araban. A-1 autobideko Gasteiz-Eibar sektorean hiru tramo edo tarte bereiztu dira eta aurrekontua 98.033 milioi pezetakoa izango da.

### HIRU TARTE

Beraz, Etxebarriko lotunetik Maltzagaraino joango den A-1 autobideak hiru tarte izango ditu: lehendabizikoa Etxabarritik Eskoriatza iparraldera bitarte-




Astelehenean, Udaletxean, autopistaren inguruko erakusketa zabaldu zeneko irudi bat. Bertan, Antton Jaime diputatua, Jose Mari Sarasola Errepideetako Zuzendari Nagusia eta Victoriano Gallastegi alkatea izan ziren, besteak beste.

koa, 24,13 kilometroko luzerakoa eta 38.300 milioi pezeta inguruko aurrekontua izango duena; bigarrena Eskoriatza iparraldetik Bergara hegoaldera artekoa, 10,34 kilometro eta 27.000 milioi pezetako aurrekontua duena. Bi tramo hauek diseinatuta daude dagoeneko eta finantziazioa lortzeko instituzioen inplikazioa besterik ez da falta. Azkenik, Bergara hegoaldea eta Maltzaga bitarteko hirugarren tramoa. Tarte honek 11,76 kilometroko ibilbidea izango du eta aurrekontua 32.600 milioi pezetakoa dela aurreikusi da. Hain zuzen ere tarte hau da gure herriari gehien afektatzen diona.

**BERGARA HEGOALDEA-MALTZAGA**

Bergara hegoaldea eta Maltzaga bitarteko tartea bi fasetan burutuko da. Lehenbizi, maiatz aldera, Bergara eta Sagarrerreka bitarteko lanak hasiko dira eta orduko Sagarrerreka eta Maltzaga bitarteko lanak adjudikatzeko asmoa dago. Antton Jaimek astelehenean Bergaran esan zuenez, "2002. urterako hirugarren tramoa trafikora zabaltzeko asmoa dago". Esan bezala, autopistaren lehen fasearen obrak Moyua, Murias, Altuna y Uria eta Galdiano eraikuntza enpresei adjudikatu zaizkie. Aipatutako lanak 9.833 milioi pezetan adjudikatu dira, lizitazio prezioan aurreikusitakoa baino %24 gutxiago hain zuzen. Enpresek bi urte eta erdiko epea izango dute lanak amaitzeko. Goian aipatutako enpresek lurren garraioa gauez egingo dute tarte horretan egoten den trafiko trinkoa ahalik eta gutxien oztopatze aldera.

**TUNELAK ETA BIDEZUBIAK**

Asteleheneko aurkezpenean adierazi zenez, Debasaren zuzendaritzapean eginiko trazaketaren proiektuak lantzerakoan, ingurunearekiko inpaktua ahalik eta txikiena izatea bilatu da. Alde batetik Etxabarri eta Eskoriatza iparraldea bitarteko tramoaren proiektua Euroestudios S.A. enpresak landu du; Eskoriatzatik Bergara hegoaldera bitartekoa Fulcrum S.A. enpresaren ardura izan da eta, azkenik, Bergaratik Maltzagara artekoa Prointec enpresak egin du. Diputazioko ordezkarien arabera, azterketa zehatza egin da ingurunearekiko inpaktoa zaintzeko. Terrenuaren orografia menditsuak behartuta, autopistak tunel eta bidezubi dezente izango ditu. Bergaran Eibar-Gasteiz autopistak lau tunel izango ditu: Aristin (300 metrokoa) Gasteiztik honauzkoan bigarren tramoak izango duen azken tunela kokatuko da eta ondoren San Martzialen (1.400 m.), Lezarrin (1.220 m.) eta azkenik, Gallastegin (Bergara eta Soraluze artean) ere tunelak izango dira. Bidezubiei dagokienez, San Prudentzion bat izango da, Ipiñarri baserriaren inguruan beste bat (biak bigarren tartekoak) eta jarraian, Ubera ibaia eta Bergaratik Elgetarako errepidea zeharkatzen duen bidezubia etorriko da. Hurrengoa Soraluzen, Gallastegi eta Eitzako tunelen artean, 140 metroko zubi batek Sagarrerreka ibarbidea gaindituko luke.

Bestalde, esan behar da Eibar-Gasteiz autopistak A-8 autopistarekin bat egingo duen tokian, Maltzagan, lau tunel izango direla, 110 eta 210 metro bitartekoak. Era berean, puntu horretan sei bidezubi izango dira. Guztira 13 tunel eta 15 bidezubi izango ditu autopista berriak.

**XXI. mendeari begira, Diputazioko arduradunek Eibar-Gasteiz autopista ekonomiaren bultzatzailetzat jotzen dute**



**"2002. urterako Bergara hegoaldea eta Maltzaga bitarteko 3. tramoa trafikora zabalduko da"**

**ANTTON JAIME**

## LOTUNEAK ETA ZERBITZUGUNEAK

Autopistak zeharkatuko dituen herriekin bost lotune edukiko ditu: Lukun, N-240 errepidean izango da lehendabizikoa eta ondorengoak honako hauek lirateke: Eskoriatza iparraldean (San Bernaben), Arrasate iparraldean (Epelen), Bergara hegoaldean (Zaldumendin) eta, azkenik, Bergara iparraldean (Amillagan). Epele eta Zaldumendiko lotuneei esker, autopistak GI-627 errepidearekin eta Beasain-Durango (GI-632) korredoarekin bat egingo du.

Gidariek, berriz, hiru zerbitzugune aurkituko dituzte autopistan zehar: Luku eta Etxabarri artean (bi norabideetan), Arrasaten (Gasteiz-Eibar norabidean) eta Eskoriatzan (Eibar-Gasteiz norabidean).

## PEAJE BIGUNA ETA FINANTZIAZIOA

Gipuzkoako eta Arabako diputazioek Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango dute proiektua finantziatzeko orduan. Antton Jaime diputatuak gure bailararen garapenerako autopistak izango duen garrantzia azpimarratu zuen astelehenean, XXI. mendeko lehendabiziko hamarkadan Gipuzkoako bihotza eta Araba lotzeko azpiegitura ezinbestekotzat jo zuelarik aspaldiko proiektu hau. Finantziazioari dagokionez, erakundeez gain, kapital pribatuaren laguntza jasotzeko itxaropena azaldu zuen. Autopistak peaje biguna izango du eta kilometro bakoitzeko 10 pezeta kobratzea aurreikusten dela aurreratu zuen Jaimek Bergaran. Bere hitzetan, "peajearekin ezin izango zaio eskatzen den inbertsioari aurre egin eta beraz Diputazioak egingo duen esfortzuaz gain, kapital pribatuaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza beharrezkoa izango da proiektua finantziatzeko orduan".

## ERAKUSKETA

Astelehenean Udaletxeko Batzorde gelan zabaldutako erakusketa ibiltaria Eibar-Gasteiz autopistak afektatutako hainbat herritan ikusi ahal izango da. Bergara izan da erakusketa jaso duen lehena. Apirilaren 25era arte izango da ikusgai Udaletxean, goizez 10:00etatik 12:00etara eta arratsaldean 18:00etatik 21:00etara. Bertan autopistaren ibilbide osoa azaltzen duen maketa bat, panel informatiboak eta bideo bat ikus daitezke. B




**EIBAR-GASTEIZ AUTOPISTA**
Bergara hegoaldea-Maltzaga

# GARRAIOLARIAK KONTRA

Diputazioak autopista eraikitzea garapen ekonomikorako beharrezkotzat jo badu ere, kontrako ahotsak ere entzun izan dira. Esate baterako, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako garraiolariak biltzen dituen Hiru federazioa autopistaren kontra azaldu da.

Esteban Muruamendiaraz bergararra Sintragi, Gipuzkoako garraiolarien sindikatuko idazkari teknikoa da. Bere hitzetan, "egia da garraiolariok bide hobeak behar ditugula baina ez edozein preziotan. Argi dago Eibar-Gasteiz autopista ez dela errentagarria izango. Horregatik atzeratu da hainbeste proiektua eta autopista kontzesionariek ere ez dute hor sartzerik nahi izan. Azkenean A-8 autopistaren kontzesioaren prorrogaren argumentua erabili dute autopista egiteko. A-8aren kontzesioa 2003. urtean bukatzen da eta orain beste 40 urterako luzatzeko asmoa dago. Oso kezkatuta gaude horrekin. Bestalde, Etxegarateren desdoblamendua ere atzeratu egin dute eta beharbada hori litzateke soluziorik onena atzerritik datorren trafikoarentzat. Eibar-Gasteiz autopista egitea baino, hobe izango litzateke Eibar eta Gasteiz bitarteko oraingo errepidea konpontzea, gizarteari balio izango dion konponketa alegia, Arrasate, Eskoriatza, Bergara edo Eibarko jendeak errepide hori erabili dezan, egunero erabili behar duenak ez baitu autopista erabiliko. Hemendik 10 urtera ere ez dut uste autopista hori beharrezkoa izango denik".

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**ZAPATUAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **09:30:** FAC-Ezinleike | **Patatus** |
| **10:30:** Patatus-Ion Autoak | **FAC** |
| **11:30:** Azpeitxi Jatetxea-Igandekoak | **Ion Autoak** |
| **15:45:** Ortzi-Bayer | **Antolaketa** |
| **16:45:** Pagomendi-La Juve | **Bayer** |

**DOMEKAN BARRUAN**

| | |
|---|---|
| **09:30:** Txipiron-Guadalest | **K. Piperrak** |
| **10:30:** Ari Ari-Komando Piperrak | **Usoa** |
| **11:30:** Usoa-Irubide Jatetxea | **Agiñaspi** |
| **12:30:** Agiñaspi-Ortzi | **Irubide** |
| **16:00:** Tom Cat Argandolas-Bayer | **SLP** |
| **17:00:** SLP-Urrutxurtu | **Tom Cat** |
| **18:00:** A Ze Flaxa Etxagi-Bar Canalejas | **Errotagain** |
| **19:00:** Errotagain-Mongatxurrak | **Matxakat.** |
| **20:00:** Matxakategi-Amozkibar | **Mongatx.** |

**DOMEKAN KANPOAN**

| | |
|---|---|
| **11:30:** Xurrupak-Jauja OH Zerezos | **Ortzi** |
| **12:30:** Buya-Mo(ko)lotov | **Xurrupak** |

## argi!

### Artusamak txapelketatik kanpo

Artusamak taldea Kopa txapelketatik eta ligako play offetatik kanporatua izan da, promozioko partidua jokatzera ez agertzeagatik. Bestalde, Shaktale taldeak lehen mailan jokatuko du datorren astean.

### Arauak gogoratuz

Play offetan eta Kopa txapelketetan, arauzko minutuak jokatu ostean, partidua berdinketaz amaituz gero, zuzenean penalti jaurtiketak izango dira, luzapena jokatu gabe. Penalti jaurtiketei dagokienez, talde bakoitzak lau penalti jaurtiko ditu.

## jokoz kanpo



**IBAN AGIRREZABAL**
**Agirrebeña Jatetxea**

**G.** Kopan kanporatuak izan zarete?
**E.** Bai. Txapelketatik kanpo gelditu gara. Komando Piperrak taldeak partidua irabazi zigun. Ez genuen batere ondo jokatu. Ganora gutxi izan genuen bai partiduan eta baita txapelketan ere.
**G.** Zenbat urte egin dituzu txapelketan?
**E.** Zazpi bat. Agirrebeña taldearekin hiru urte eta beste talde batzuetan ere ibili naiz.
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?
**E.** Aurrean.
**G.** Urte hauetan txapelketa nola ikusi duzu?
**E.** Ondo antolatuta dago, baina arau gehiegi daude.
**G.** Gogoratzen duzun partidu gogorrena?
**E.** Mo(ko)lotoven kontra jokatu genuena. Ozta ozta irabazi genuen.
**G.** Txapelketako talde eta jokalari bat?
**E.** Azpeitxi eta Iban Agirrebeña.
**G.** Zenbat zarete taldean?
**E.** Ez dakit. Ez dugu ganora handirik izan. Batzuk etorri eta beste batzuk joan egin dira. Jokalari aldetik estu ibili gara beti.
**G.** Datorren denboraldian zer?
**E.** Ez daukat jokatzeko asmorik. Dagoeneko aspertu naiz.
**G.** Zein futbol taldetakoa zara?
**E.** Athleticekoa.
**G.** Athleticeko lagunartearte berrian izango zara?
**E.** Bai, bai.

## gora eta behera

### SLPk Azpeitxi kalera

la liga osoan zehar lehen mailako lider izan den Azpeitxi play offetatik kanporatua izan da, SLPk 4-6 irabazi ondoren. SLP-k 4. mailako 2. postuan amaitu zuen liga. Mongatxurrak-ek liga azken partidua jokatu ondoren 6. gelditzea lortu du Ortzi taldeari 2-7 irabazi ondoren. Ortzi zazpigarren geratu da sailkapenean.

### Play offetan kanporatuak

Play offetako lehen jardunaldia jokatu ondoren, Azpeitxi Jatetxea, Urrutxurtu, Ari-Ari, Amozkibar, FAC eta Xurrupak taldeak kanpora joan dira eta kopa jokatzeari ekingo diote.

## emaitzak

**PLAY OFFAK**

| | |
|---|---|
| Azpeitxi Jatetxea-SLP | 4-6 |
| Pagomendi-Urrutxurtu | 5-3 |
| Errotagain-Ari Ari | 4-0 |
| A Ze Flaxa Etxagi-Amozkibar | 8-4 |
| Bildurbarek Opel/Lam-FAC | 6-2 |
| Bar Canalejas-Xurrupak | 5-1 |

**KOPA**

| | |
|---|---|
| Patxaran Team-Ion Autoak | 4-4 |
| Moskis-Igandekoak | 4-5 |
| Agirrebeña-Komando Piperrak | 4-5 |
| Amilotx-Guadalest | 2-6 |
| Txipiron-HHH | 5-2 |
| Buya-Etengabe | 3-2 |
| Jauja OH Zerezos-Arbe Kirolak | 7-3 |
| Mo(ko)lotov-Sirimiri Eri | 2-1 |
| Patatus-Shaktale | 3-0 |
| Usoa-Pinturas Bergara | 4-3 |
| Ufala-La Juve | 2-3 |

**PROMOZIOA**

| | |
|---|---|
| Jauja OH Zerezos-Xurrupak | 6-3 |

**LIGA**

| | |
|---|---|
| Ortzi-Mongatxurrak | 2-7 |

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

IRURAK PINTURAK O.E.
ERA GUZTIETAKO LANAK PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32

Aldibi
Aldibi autoak, S.A.
Zigarrola 1 • ARRASATE
Tf. 943 71 20 02
Faxa: 943 79 65 65

kronikak

### Futbola
## Kadeteak bigarren kopan

Joan zen asteburuan Anaitasuna taldeari 0-1 irabazi ondoren, Aranburu eta Jausororen mutilek bigarren postua eskuratu dute. Bergararren gola bigarren zatian etorri zen. Iban Unanuek partiduko azken unean egin zuen partiduko gol bakarra.

Azkoitian jokatutako partiduan indarrak parekatuta egon ziren baina bergararrek ez zuten garaipena kanpoan lagatzeko asmorik izan. Kopa txapelketa amaitzeko sei jardunaldien faltan, kadeteek bi partidu jarraian etxean jokatuko dituzte. Asteburu honetan, lehen postuan sailkatuta dagoen Lengokoa taldearen kontra jardungo dute BKEko gazteek.

### Eskubaloia
## Kopan estreinu petrala

Eskubaloi sailean, partidu bakarra jokatu zen joan zen asteburuan. Lijoren mutilak kopa txapelketan ez zuten estreinu ona izan. Lehendabiziko partidua galdu egin zuten 20-27 Ormaiztegi taldearen kontra. Entrenatzaileak adierazi digunez, “Aste Santuan ez genuen entrenatzerik izan eta hori gero igarri egin zen partiduan”.

Hasierako minutuetan bi taldeak nahiko parekatuta egon ziren baina gutxinaka Ormaiztegiko taldea aurrerantzen joan eta partidua irabaztea lortu zuen. Bergarakoek lasaitasun handia erakutsi zuten. Une honetan hirugarren doaz eta hurrengo partidua Aloñaren kontrako derbia izango da.

### Saskibaloia
## Kadete neskak gogo gutxirekin

Saskibaloiko kadete neskak ez dira denboraldi ona egiten ari. Aste Santuan jokatu beharreko partidua bertan behera utzi behar izan zuten epaileek Bergarakoak partidura jokalari gabe agertu zirelako.

Une honetan kopa jokatzen ari dira eta entrenatzaileak adierazi duenez, ez du gogo handirik ikusten eta azkenengo postuetan geratuko direla uste du. Lehen itzulian ez zuten zorterik izan. Talde gogorren kontra neurtu behar izan ziren. Une honetan bederatzigarren daude eta asteburuan laugarren postuko Beasainen kontra jokatuko dute. Saskibaloiko kadeteek denboraldia Bergarako jaietan amaituko dute.

### *ANE MIREN FERNANDEZ/ Gimnasta*
## *“Egunero entrenatu behar da”*

**Iaz urte berezia izan zen Ane Mirenentzat. 14 urteko bergararrak lan paregabea egin zuen Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako txapelketetan. Eibarreko Ipurua elkartean ari da entrenatzen baina Bergarako Ariznoa Elkartearen izenean konpetitzen du.**

**G.** Konzentrazio batetik etorri berri zara?
**E.** Llanesen izan ginen, Ipuruako taldearekin. Astebetez, Zaragozan izan zen nazioarteko txapelketa prestatzen egon ginen. Alemania, Italia, Portugal eta estatuko hainbat tokitatik etorri ziren txapelketara. Oraindik ez dakizkit sailkapeneko emaitzak baina maila oso ona erakutsi zuten atzerritarrek.
**G.** Zer ezberdintasun dago Eibarren edo Bergaran entrenatzearen artean?
**E.** Eibarren entrenatzaile eta baliabide gehiago daude. Ordutegia ere zabalagoa da.
**G.** Zenbat ordu entrenatzen duzu egunean?
**E.** Hiru ordu inguru. Batzutan gehiago, bestetan gutxiago. Hori bai, egunero zerbait entrenatu beharra dago.
**G.** Gogorra al da astean entrenatzea eta asteburuetan konpetitzea?
**E.** Gogorra da baina gustoko dut eta ez zait astuna egiten. Ikastolako lanekin ondo konpontzen naiz eta beraz...
**G.** Gimnasta batek zerbat neurtu eta zenbat pisatu behar du?
**E.** Ez dago neurri zehatzik baina mugimenduak egiteko arintasuna behar da eta horretarako janaria zaindu behar dugu.
**G.** Zein janari utzi beharrak ematen dizu min handiena?
**E.** Ogia.



# KARTELDEGIA

### Futbola
**Bergara-Arrasate**
Preferente maila
Zapatua. 16:30. Agorrosin
**Bergara-Aretxabaleta**
Jubenil maila
Zapatua. 18:15. Ipintza
**Bergara-Tolosa**
Infantil maila
Domeka. 10:00. Ipintza
**Bergara-Lengokoak**
Lehen mailako kadeteak
Domeka. 11:30. Ipintza

### Saskibaloia
**Bergara-Alde Zaharra**
Jubenil neskak
Zapatua. 16:00. Kiroldegia
**Bergara- Easo**
Kadete mutilak
Zapatua. 16:00. Kiroldegia
**Bergara- Beasain BKL**
Kadete neskak
Zapatua. 17:30. Kiroldegia
**Bergara-Askatuak**
Jubenil mutilak
Zapatua. 17:30. Kiroldegia
**Bolsos Bergara -Azpeitia**
Seniorrak
Zapatua. 19:00. Kiroldegia

### Pilota
Elgetako 4 1/2 txapelketa ETB
Kantxa SARIA
**Kadete maila**
- Herran-Beitia
- Orgaz-Arana

**23 urtez azpitik**
- Puello-Albizuri II
- Redondo-Antxia II

Eguakitza. 19:30. Pilotalekua

Deba Arroko Txapelketa
Final erdiak
Kadete maila:
**Bergara-Soraluze**
Senior maila:
**Bergara-Eibar**
Astelehena. 19.30. Pilotalekua

### Nesken Futbito txapelketa
**Potzu Ta Zapaburuak-Gu geu**
Arb. Nifits
Domeka. 16:30. Miguel Altuna
**Nifits-Tetsi**
Domeka. 17:30. Miguel Altuna
Arb. Gu Geu

# Kirol materiala euskaraz sortzeko beken IX. edizioa

## Aurten gimnasia erritmikoa eta herri kirolak landuko dira

**Deba Garaiko Euskara eta Kirol zerbitzuek, kirol materiala euskaraz erabiltzeko asmoz, bederatzigarren urtez beka lehiaketa kaleratu dute. Aurten emango den diru laguntza, gimnasia erritmikoa eta herri kirolak garatuko dituzten lanentzako izango da. Lanak Bergarako Udal Kirol Zerbitzuan aurkeztu beharko dira maiatzaren 28a baino lehen.**



Beka bakoitzak 300.000 pezetako dirulaguntza jasoko du, eta lanak bost hilebeteko epean egin beharko dira.

1991. urtetik egiten den bezala, aurten ere Deba Garaiko Kirol eta Euskara zerbitzuek kirola euskaraz bultzatzeko asmoz eta kirol munduan euskarak presentzia gero eta handiagoa izan dezan, 40-50 fitxa teknikoek osatuko duten material didaktikoa sortzeko bekak plazaratu dituzte.

Aurreko urteetan, tenisa eta aldizkako kirolekin gertatu zen bezala, aurten gimnasia eta herri kirolak dira ikerketa egiteko aukeratutakoak. Iñaki Ugarteburu kirol teknikariak adierazi digunez, "bailaran hainbat kirolek duten hedapenaren arabera aukeratzen dira. Aurreko urteetan futbola, saskibaloia eta eskubaloia bezalako kirol ezagunak aztertu genituen. Gimnasia erritmikoan ez dago euskaraz sortutako material didaktiko askorik. Helburu nagusia kirol terminologiaren erabileran euskara sustatzea denez, aukeraketa hori egin da. Herri kirolei dagokienez ezagutzera eman behar dira, egokitu egin behar ditugu, Euskal Herrikoak direlako eta bestalde, herri kiroletan ez dagoleako idatzitako material askorik. Metodologia sortzeko lehen urratsa izan daiteke".

Garatutako materiala, kirol elkarte, ikastetxe eta kirol heziketaz arduratzen diren teknikariei banatuko zaie, kirola sustatzeko eta egiteko garaian erabiltzen den hizkuntza, euskara hutsean izateko bideak egon daitezen. Lana aurkezteko garaian, beka eskatzaileek fitxa bakoitzaren alde praktikoa eta teorikoaren adibideak aurkeztu beharko dituzte, fitxak egiteko bibliografia nondik jasotakoa den azaldu beharko da eta lanaren gidoia adierazi beharko dute. Modalitate bakoitzak 300.000 PTAko diru laguntza jasoko du. Diru laguntza hauek Gipuzkoako Foru Aldundiak, SHEEK/IVEF eta Eusko Jaurlaritzak eskainitakoak dira.

**Bekak eskatzen dituztenek gimnasia erritmikoaren eta herri kirolen eduki nagusiak aztertu beharko dituzte**

### GIMNASIA ERRITMIKOA ETA HERRI KIROLAK

Gimnasia erritmikora zuzenduta dagoen bekan, aipaturiko kirol honen historia, araudia, gorputz teknikak, hainbat modalitatetan erabiltzen diren aparatu-tekniken oinarriak, prestakuntza fisikoa, koreografia, fitxen edukia eta hitz teknikoen hiztegia adierazi beharko da. Herri kirolen azterketari dagokionez, historia, oinarrizko araudia, urteetan zehar izan duen garapen didaktikoa eta herri kirolen mugimenduak aztertu beharko dira. Mugimendu hauek bost taldetan banatzen dira; lana arrastaka egitea eskatzen duena, altxatzea, ebakitzea, garraiatzea eta korrika egitea. B

# Hirugarren urtez Goyo del Real txapeldun txakur leren lasterketan

**Joan zen domekan** jokatutako Gorlako Txakur Leren lasterketan Goyo del Realek errekorra lortu zuen sailkapen orokorrean 24:43ko denborarekin. Hirugarren urtez madrildarrak eta bere sei txakurrek eraman zuten sari nagusia etxera.

Bigarren postua Harry Ruizek eskuratu zuen 26:30ko denborarekin eta hirugarrena Roberto Pro izan zen 26:32ko denbora eginez. Bergarako ordezkari bakarra izan zen Axen Garitanok, 27:08ko denbora egin zuen eta 5.postuan sailkatu zen. 41 partehartzaile eta 250 txakur bildu ziren Gorlan. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, ikusle ugari gerturatu ziren txakur leren lasterketara. Pep Pares Pirenako buruak adierazi zuenez, "antolatzaileak benetan zoriondu behar ditut egin duten lanagatik. Mendian egiten diren lasterketa hauek beharrezkoak dira txakurrak elurretako lasterketetan ondo ibili daitezen".



Goyo del Real (erdian) eta Axen Garitano bergararra (eskuman).

## Elkoro gipuzkoar manomanista bakarra Aspen



**Aitor Elkoro** elgetarra izango da Aspeko txapelketan izango den gipuzkoar bakarra. Errasti eta Koka kanpoan gelditu ondoren, komunikabide nagusiek finala Elkoro eta Eugiren artean geldituko dela adierazi dute. Finala, ekainaren 6an jokatuko da, Eibarreko astelehena pilotalekuan.

Aitorrek adierazi digunez, "aurreko lesioetatik guztiz errekuperatuta nago eta ilusio handia daukat. Presio txiki bat ere izango dut gipuzkoar bakarra izatean baina pozik eta gogo handiz nago. Lehendabiziko partidua maiatzaren 16an jokatu dut. Ordurarte prestaketa lanak egiten jardungo naiz".

## ESKOLA KIROLA
### Karteldegia

**PIRAGUISMOA**
**09.30:** M. Lagundia (mutilak)
**10.30:** Aranzadi (neskak)
M. Lagundia (neskak)
**11:30:** Aranzadi-5.maila(mutilak)
San Martin
**12:30:** Aranzadi-6. maila (mutilak)
*Zapatuan Agorrosingo igerilekuetan.*

**FUTBOLA**
Benjamin maila:
**10:30:** Antzuola B-Aranzadi 6
**10:30:** M. Lagundia E-M. Lagundia B
**11:30:** Aranzadi 3-Aranzadi 5
**11:30:** M. Lagundia D-San Martin B
**12:15:** Aranzadi 2-M. Lagundia A
**12:15:** Aranzadi 4-Aranzadi 1
*Zapatuan Ipintzan*
*Atsedena, S. Martin A eta Antzuola A*
Alebin maila (Gipuzkoako Txapelketa):
**11:00:** Txan 6 A.M-Aranzadi 11
*Zapatuan, Ibarran (Oñati)*
Infantil mailako mutilak:
**09:00:** Aranzadi-M. Lagundia
*Zapatuan, Ipintzan*
**10:30:** Sto. Tomas A-Aranzadi
*Zapatuan, Matigoxotegin (Donostia)*

**ARETO FUTBOLA**
Kadete mailako neskak:
**11:00:** La Salle-Aranzadi
*Zapatuan, La Sallen (Eibar)*

**ESKUBALOIA**
Infantil mailako mutilak:
**10:30:** Arrasate -Aranzadi
*Zapatuan, Musakolan (Arraste)*

**BADMINTONA**
Alebin maila:
**10:30:** M. Lagundia eta San Martin
**11:30:** Aranzadi
*Zapatuan. M. Lagundian*

## Athletic Clubeko lagunartea sortu nahian

**Bergarako** Athletic futbol taldeko zaletu talde batek, Bergarako Athleticeko lagunartea sortu nahi du eta horretarako interesatuta dauden guztiei kide izateko deialdia egiten die. Izen ematea Matxiategiko Toki Ona tabernan edo 943 76 39 53 telefonoan.

## Mendi bizikleta irteera

**Bergarako** Txirrindulari Elkarteak iganderako mendi bizikleta irteera antolatu du. Oraingoan Bergara, Gorla, Santa Barbara, Deskarga, Arrola, San Miguel eta Bergara izango da ibilbidea. Irteera goizeko 8:30etan izango da, Beheko Estazioan.

## Gimnasiako eskolarteko txapelketa Bergaran

**Zapatuan**, eskolarteko gimnasia erritmikoko txapelketa jokatuko da kiroldegian goizeko 11:00etan. Bertaratuko diren taldeak, Bergara, Eibar, Azkoitia, Elgoibar, Arrasate eta Soraluzekoak izango dira. Gipuzkoako txapelketarako puntuagarria da. Bergarako taldean Shaila Murillo, Naiara Cantero, Izargi Vega, Virginia Odriozola eta Irati Arteaga arituko dira.

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***

**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. IBILGAILUAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### SALDU

Pisu amueblatua Zubiaurren. 943 76 48 05.

Fraiskozuri. 943 76 15 40.

Masterreka. 943 76 17 49.

Elorregi. 943 76 07 47.

Antzuola. 943 76 19 21.

Osintxu. 943 76 49 74.

Martoko. 943 76 37 21.

Pisua salgai Zumarragan. 943 76 23 84.

Soraluzen. Berriztua eta amueblatuta. 943 75 23 88.

Bolu. 943 76 24 85.

### ERRENTAN EMATEKO

Apartamendua Zarautzen (abuztuan ez). 943 76 42 05.

Etxea alokairuan. 943 76 18 96.

### ERRENTAN HARTZEKO

Pisua hartuko nuke alokairuan. 943 85 36 99.

Pisua hartuko genuke alokairuan. 943 76 26 82 /943 76 57 34.

### ETXE KONPARTITUAK

Gela nahi nuke pisu konpartituan. 943 27 77 80.

## 2. GARAJEAK

### SALDU

Garajea salgai Artzamendin. 943 76 06 25.

Garajea salgai Ibargarain. Deitu 943 15 15 81 telefonora.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Garajea salgai Masterrekan. 945 23 48 07.

Garajea salgai Aranerrekan. 943 76 28 07.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. 943 76 27 61.

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 18 85.

Zubiaurre. 943 76 08 89.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 23 53.

Garajea salgai Zubiaurren. 943 76 23 53.

### ERRENTAN EMATEKO

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Ibargarain. 943 76 33 76.

### ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. Deitu 943 76 47 50 telefonora (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

## 3. LOKALAK

### ERRENTAN EMATEKO

S. Pedro. 943 76 10 39.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71/ 76 37 80 (gauez).

### ERRENTAN HARTZEKO

Nekazal lursaila (2.000 m2) alokairuan hartuko nuke. 943 76 26 79.

## 4. LANA

### ESKAINTZAK

Erizain titulatuak gaixoak, edadetuak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeko lanak edo haurrak zaindu. Esperientzia. 943 76 72 32 (Ana).

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 46 07.

Neska edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Arratsaldez lan egingo nuke. 943 76 52 39.

Neskak, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak. 943 76 42 63.

Astebukaeretan tabernari lanak egingo nituzke. 943 76 36 14 (Igor).

Neskak goizez haurrak zaindu edo dendan lan. 943 76 53 71 (Maite).

Emakume batek etxeko lanak edo atariak garbitu. 619 52 98 04.

### ESKAERAK

Senar-emazte edadetuak zaintzeko pertsona behar da. 629 26 39 45

Jatetxe batean
GARBITZAILEA
behar da
943 76 59 19

Artekale pizzeriak
AUTODUN
PERTSONA
behar du
banaketak egiteko
943 76 72 00

Kizkur
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma

Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

ARDATZA
Brikolaketa
Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak
Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

Tabernan
lan egiteko
ESPERIENTZIADUN
NESKA
behar da
617 206 629

Afariak ematen ditugu


Artekalea 14. Tf. 943 76 20 42

Uztail-abuztuan etxeko lanetarako neska behar da. 943 76 22 39.

Etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko emakumea. 943 76 44 08.

Etxeko lanak eta umeak zaintzeko emakumea. 943 76 54 12 (gauez).

Emakume euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanetarako. 943 76 13 23 (Arantza).

## 5. IRAKASKUNTZA

**ESKAINTZAK**

Ingeles filologian lizentziatuak klaseak ematen ditu. 943 76 30 28.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

OHO eta DBH klaseak. 943 76 26 27 (Ainhoa).

OHOko klaseak. 943 76 37 94.

## 6. IBILGAILUAK

**SALDU**

Yamaha 250 cc. motorra, beltza eta kromatua. 943 76 28 92.

Suzuki GSX 750 motorra salgai. Prezio ona. 610 20 82 78.

Citroen BX egoera onean. 943 76 29 79 (Ion).

Golf GTI. 6 urte, egoera onean. 608 77 17 32.

Ford Orion 1.6 Ghia. Aire egokitua. Kilometro gutxirekin. 943 76 23 12.

Honda CR motorra salgai. 250 cc. 9 urte. 943 76 15 34 (Asier).

Fiesta 1300 (SS-W) prezio ona. 943 76 63 29.

Renault Super5 (SS-AB) egoera onean salgai. 943 79 68 75.

Honda NSR 80 motorra salgai. 943 76 31 52.

Aprillia Klimber motorra salgai. 943 76 07 28.

Ford Sierra 2.3 diesel egoera onean salgai. 617 20 66 29.

Renault Clio 16 v. (SS-AU). 90.000 Km. 943 76 81 15.

Naus 485 karabana, 5 plaza. 943 76 44 07.

Trialeko Beta 250 cc. motorra salgai. 225.000 pezeta. 943 76 19 88.

## 7. ANIMALIAK

**SALDU**

Ardi txakurkumeak (arrak eta emeak). 943 81 56 20.

Boxer txakurkumeak salgai. 943 76 40 73.

Hamsterkume indioak salgai. 943 76 43 70.

Untxi indiarrak salgai. 943 76 33 12.

## 8. DENETARIK

**SALDU**

Opera eta kamara musika CD bildumak salgai. 943 76 58 05 (Juanje).

Trabesiako eskiak salgai. 943 79 06 33.

Altzariak salgai, berriberriak. 619 80 26 06.

Berogailua-akumuladorea salgai. 943 76 44 19.

Errepideko bizikleta (8-12 urtekoentzat). 943 76 72 17.

Teknigrafoa salgai. 943 76 02 12.

Jaunartzeko bi traje (marineroa eta neskatilarena). 943 76 14 70.

Jaunartzeko trajea salgai. 639 93 68 41.

Bi bizikleta egoera onean salgai. 943 76 13 53.

Kalentadore termo berri bat saldu nahi nuke. 943 76 30 83 (Juli).

Ohe artikulatua. 90 zm.koa. 943 76 20 90.

Logela-altzariak. Egoera onean. 943 76 06 78 (21:00etatik aurrera).

Altzari klasikoak salgai. 943 76 17 08.

Kitarra espainola. Berria. 943 76 59 94 (gauez).

**EROSI**

Kitarra elektrikoa eta anplikadorea erosiko nuke. 607 95 77 48.

**GALDU**

Urrezko ezkontza-eraztuna galdu dut. "15 de octubre de 1960" idatziduna. 943 76 10 18.

Kartera larrosa galdu dut, objetu pertsonalekin. 943 76 30 32.

**Langai**
Euskal Lan Zerbitzua

***SUKALDARIA***
Mallorca. 17238/1

***PROGRAMATZAILEA***
Arabar Lautada. 17294

***GOZOGILEA***
Arabar Errioxa. 17418/2

***PLADUR MUNTATZAILEA***
Arabar Lautada. 17433/4

***INDUSTRI INJINERU TEKNIKARIA***
Urola Kosta. 17622/5

***REBARBATZAILEA***
Etxebarri. 17645/3

***ETXEZ-ETXEKO LANGILEEN LAGUNTZAILEA***
Arabar Lautada. 17664/5

***HAROTZA***
Deba Garaia. 18255/2

***TABERNARIA***
Bilbo. 18359/3

***PINTOREAK, 2***
Bermeo. 18369/3

***SUKALDARI LAGUNTZAILEA***
Bilbo. 18378/2

***LOGISTIKA ARDURADUNA***
Bilbo. 18505/2

***IGELTSEROA***
Ibai ezkerraldea. 16196/3

***HARAKINA***
Ibai ezkerraldea. 17558/6

***FORJATZAILEA***
Durangaldea. 17758/5

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.


**Haurdun bazaude**
**LAURA da zure jantzidenda.**

**Udaberriko moda gaztea jazteko,**
**neurria ez da izango arazoa.**

**Tailaje zabalena dugu.**

Laura



Erdiko kale 30
ARRASATE
Tf. 943 79 05 80

# Bergarako Udaleko taula flamenkoa Santiago Bideko erakusketa ibiltarian izango da

## Taula birgaitu egin behar denez, Oviedoko lehen eraskusketan ez da izango

**Bergarako Udaleko taula flamenkoa, "Kristo Hilagatik Dolua" izenekoa, erakusketa ibiltari batean parte hartzeko Udalak prestamoan laga dezan eskatu du Calahorra, La Calzada eta Logroñoko Elizbarrutiak. Bergarako Udalbatzak bere oniritzia eman zuen aho batez astelehenean taula flamenkoa prestamoan lagatzeko.**

Aurten Done Jakueren urtea ospatzen dela eta, "Las Tablas Flamencas en la Ruta Jacobea" izeneko erakusketa ibiltaria antolatuko dute Santio Bidea igarotzen den lurraldeetan kontserbatzen diren pintura-lan flandiarren selekzio batekin. Calahorra, La Calzada eta Logroñoko Elizbarrutiak antolatuko du erakusketa eta Bergarako Udalak aurtengo apiriletik azarora arte lagako du taula prestamoan.




Erakusketarako argitaratu den liburua. Beste orrialdean, Bergarako taula.

### TAULA ERRESTAURATU BEHARRA

Taula aste honetan eraman behar zuten Bergaratik, baina eraman aurretik taularen kontserbazio egoerari buruzko txosten teknikoa egin behar zuen orain dela 10 urte taularen garbiketa eta errestaurazio lanak egin zituen enpresa berak, Donostiako Albaialdek.

Enpresa horretako errestauratzaile bat eguaztenean izan zen Bergaran taularen egoerari buruzko azterketa egiten eta tekniko honek gomendatu du taula dagoen tokitik ez mugitzea, hainbat puntutan zentimetro bateko zatitxoak jasota daudelako: pintura geruza euskarritik solte dago eta arriskua dago pintura zati horiek betirako galtzeko. Horregatik, aurretik birgaitze lanak egitea gomendatu du teknikoak. Lan horiek egiteko 20 bat egun beharko dira eta lehen erakusketa apirilaren 23an Oviedon zabalduko denez, ezin izango da Oviedon ikusi. Astelehenean eramango dute Donostiara konpontzera.

Bestalde, abenduan, taula berriz Bergarara itzultzen denean, beste txosten bat egingo da, eraman zen egoera berean itzuli den jakiteko; arazoren bat izango balitz, antolatzailearen ardura izango litzateke.

### 70 TAULA FLAMENKO

Erakusketa XV. eta XVI. mendeetako 70 taula Flamenko inguruk osatuko dute. Besteak beste, leku hauetako piezak ikusi ahal izango dira: Logroñoko hainbat eliza eta komentu, Santanderreko hainbat eliza eta komentu, Logroñoko hainbat eliza, Santo Domingo de La Calzadako katedralea, A Coruñako museoa, Leongo museoa, Arabako Arte Ederretako museoa, Donostiako San Telmo museoa (bi taula) eta Madrilgo El Prado museoa (taula bat). Erakusketa honako leku eta egunetan antolatuko da: Oviedon, api-

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

LONBIDE
OINETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



rilaren 23tik maiatzaren 27ra; Leonen, maiatzaren 31tik uztailaren 2ra (Bergarako taula eta guzti); Palentzian, uztailaren 6tik abuztuaren 5era; Santo Domingo de La Calzadan, abuztuaren 10etik irailaren 15era eta Madrilen, irailaren 20tik urriaren 25era.

Taularen garraioa arte lanen garraioan aditua den enpresa batek egingo du. Taularentzat kaxa berezi bat egingo da, isotermikoa eta hidrofugoa. Garraioa eta babes baldintzak antolatzailearen konturakoak izango dira. Erakusketaren antolatzaileak konpromisua hartu du giro baldintza egokiak ziurtatzeko. Honela, hezetasun maila %50-60 artean mantenduko da, tenperatura 18-22 graduen artekoa izango da eta argiztapena 180 lux-etakoa izango da.

Bestalde, antolatzaileak erakusketaren katalogoa eta liburua aterako ditu eta Bergarako taula bertan azalduko da. Horrez gain, obra bakoitzaren aseguru bat kontratatuko du (25 milioi pezetakoa) pieza bere jatorritik atera eta bertara bueltatu arte babestuko duena.

**PIEZA BALIOTSUA**

Bergarako Udaleko "Kristo Hilagatik Dolua" taula flandiarra, XV. mende bukaerako taula baliotsua da, Udaleko ondasun artistiko mugigarrien artean pieza garrantzitsuenetakoa, garrantzitsuena ez bada, Xabier Aranburu udal museologoaren txostenean jasotzen denaren arabera. Bergarako Udalak 22 milioi pezetan baloratuta dauka. B



■ salduenak / **martxoa**

## LIBURUAK

**Euskaraz**

1. PALESTINA ZAURITUA
   Imanol Murua. Susa
2. ITSAS ARRANTZA
   Josu Iñaki Erkoreka. GFA
3. OSTEGUNAK
   Jon Arretxe. Elkar
4. KRABELINA BELTZA
   Juan Martin Elexpuru. Txalaparta
5. HONTZAREN ORDUAK
   Txiliku. Elkar

**Erdaraz**

1. LAS AFUERAS DE DIOS
   Antonio Gala. Planeta
2. HIJA DE LA FORTUNA
   Isabel Allende. Plaza & Janes
3. PASOS PERDIDOS...
   Javier Gómez de Liaño. Temas de Hoy
4. EL CÓDIGO OCULTO DE LA MIRADA
   P. Guanir. Tafor
5. LAS PREGUNTAS DE LA VIDA
   Fernando Savater. Planeta

*Iturria: Bilintx, Peñalba eta Zangitu*

# Jaietako rock kontzertuak prest

**Zehaztuta dago** Bergarako jaietan Bideberrin antolatuko diren rock kontzertuen egitaraua. Aurten lau egunetan izango dira, eguakitz, zapatu, domeka eta astelehenean eta kanpoko taldeez gain Bergarako zortzi taldeek joko dute. Antolatzaileek makina bat buruhauste izan dituzte egitaraua osatzeko, baina herriko taldeekin akordio batera heldu ondoren, programa borobiltzea lortu dute.


Factoria 77.

Honako hauek dira aurtengo jaietan Bideberrin joko duten taldeak: eguakitzean, Gijongo Doctor Explosion, Aerobitch madrildarrak, III donostiarrak eta Factoria 77 (lehengo Assholes) bergararrak. Zapatuan, Tav Falco & The Panterburns estatubatuarrak (Menphiskoak), He Meows bartzelonarrak, Ked Shift madrildarrak eta Fly Shit bergararrak. Domekan, Bergarako lau talde izango ditugu: X-AT, The Elevators, Nightrains eta Requiem. Astelehenean, azkenik: Zumbizu madrildarrak, Lif hondarribitarrak eta Frenopatics eta Zartateko bergararrak.

## DISKOAK

1. DILE AL SOL
   La oreja de Van Gogh
2. DEPENDE
   Jarabe de palo
3. BACK ON TOP
   Van Morrison
4. VIDA LOCA
   Francisco Céspedes
5. UN POQUITO QUEMAO
   Sargento García
6. RAÍZ
   Pedro Guerra
7. POST ORGASMIC CHILL
   Skunk Anansie

*Iturria: Bilintx eta Zaiazko*

TABERNA-ERRETEGIA
Haragi eta ehizakietan berezitasuna
Sagardotegi menua
EGUZKITZA
Aranerreka 30. Tf. 943 76 22 49.
Mugikorra: 639 28 65 56

GASTON Y DANIELA
Oihal batek aldatzen du dena
Kruz Gallastegi 3, BERGARA ☎ 943 76 07 37

## denborapasa / LUMA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

### Ezker eskuma

1. Kopeta ilun duena, haserrea adierazten duena. 2. Ardiaren arra. Portu. 3. Zeini. Maindirea. 4. Albaniako hiriburua. Jatorri atzizkia. 5. Emakume izena. Oxigenoa. Eskuz idazteko tresna zaharra. 6. Lantoki. Lehenengoa. 7. Bostehun. Dolua. 8. Ukan. Gor. Kontsonantea. 9. Interjekzioa. Zerbaitetik ahal den onura handiena lortu. 10. Jarria. Oinarrizko edaria.

### Goitik behera

1. Kanta-saioak. 2. Lapurra, ebaslea. Arrazoi. 3. Jaia. Potasioa. 4. Gaixoa. Soinu baten altuera. 5. Titanioa. Gizon izena. Sao Tome eta Printze. 6. Kasik (bi hitz). Zapore. 7. Kontsonantea. Azkenekoa. Fruitu-mota. 8. Ezeztatu. Garoa, iratzea. 9. Noka, naramazu. Istu. 10. Arabako herria. Zori, zorte.

### Soluzioa

*Ezker eskuma*
1. Kopetiluna. 2. Aharia. Kai.
3. Nori. Izara. 4. Tirana. Tar.
5. Ana. O. Luma. 6. Lantegi. A.
7. D. Dolumina. 8. Izan. Sor. D.
9. Ai! Ustiatu. 10. Kokatua. Ur.

*Goitik behera*
1. Kantaldiak. 2. Ohoina. Zio.
3. Parranda. K. 4. Eria. Tonua.
5. Ti. Noel. St. 6. Iaia. Gustu.
7. L. Z. Limoia. 8. Ukatu. Ira.
9. Naraman. Tu.
10. Aiara. Adur.

# bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar

***Zein da elkarte honen izena eta zenbat urte betetzen ditu aurten?***

# galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Eibar-Gasteiz autopistak 46,2 kilometro izango ditu. Gipuzkoako lurraldean zenbat?
A- 31,9 Km
B- 14,3 Km
C- 26,5 Km

2. "Kristo Hilagatik Dolua" izeneko taula flamenkoa zer garaitakoa da?
A- XVI. mendekoa
B- XIV. mendekoa
C- XV. mende bukaerakoa

3. Udaleko Euskara eta Kirol zerbitzuek kirol beka deitu dute. Ze kirol lantzeko?
A- Gimnasia erritmikoa eta herri kirolak
B- Saskibaloia eta futbola
C- Arku tiraketa eta partxisa

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Panaderokua** jatetxean izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Inazia Garai**rentzat izan da: Tartufo jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Inaziari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **1932 urtea, martxoaren 27a**
Galde Debalde: **1-B, 2-C, 3-A**

**BONOFOTOA** ______________________

______________________

**GALDE DEBALDE** *1:* ______ *2:* ______ *3:* ______

Izen-deiturak: ______________ Telefonoa: ______________

*Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

PANADEROKUA
JATETXEA
SALBADOR 10 ELGETA
TF. 943 76 82 73

**Ipintza Institutuan LOGSEko 2. mailan ari da eta datorren urtean Geografia edo Itzultzaile ikasketak egiteko asmoa dauka. Aamaitu berri den Jarduneko "Bergara ezagutzen" lehiaketan kolaboratu du 17 urte gazte honek.**

# Sergio Romero



**Institutuaren ondoren, zer?**
Geografia edo itzultzaile lizentziatura ikasteko asmoa daukat.
**Zein da zure bizitzako anbiziñua?**
Munduari bueltak eta bueltak emotea.
**Ikasle ona zara?**
Maisuei galdetu...
**Ikasgaiarik gustokoena?**
Geografia eta psikologia. Gutxien? Mate eta historia.
**Ikas orduetatik kanpo, zenbat denbora ikasten?**
Gutxi.
**Klase partikularrik hartzen dozu?**
Bai, ingelesa eta mate.
**Zein ordutan oheratzen zara?**
12ak aldean.
**Etxeko lanetan laguntzen dozu?**
Bai, noizean behin.
**Sukaldari ona zara?**
Ointxe nabil ikasten...
**Janari eta edari bat?**
Spagetiak eta zerbeza on bat.
**Eta jan ezin dozun beste bat?**
Arraina.
**Juergazalea zara?**
Ez.
**Alkoholik gabe ondo pasa daiteke?**
Bai, baina alkoholarekin nahiago.
**Jairik onenak, zeintzuk?**
San Martinak.
**Tabernak ala diskotekak?**
Tabernak.
**Zelako musika gustatzen jatzu?**
Danetik, jazza eta bluesa kenduta.
**Erositako azken CDa?**
Fromheadtotoe taldearen "I'm the fuel".
**Irakurritako azken liburua?**
Klasean agindutako bat: Sepulvedaren "Un viejo que leía historias de amor".
**Hobby bat?**
Musika.
**Zure talde faboritoa?**
Garbage.
**Zure bertute eta defektu bat?**
Komunikatzeko erreztasuna eta defektua, pesimista eta burugogorra naizela.
**Zenbat diru daukazu poltsikoan?**
Ezer ez.
**Zure bizitzan zerbaiten falta somatzen duzu?**
Bai [barre].
**Telebista ala irratia?**
Irratia baina telebista gehiago ikusten dut.
**Gustoko programa bat?**
Radio 3-eko "Fluido rosa".
**Politikan sinisten dozu?**
Gutxi.
**Animalia bat?**
Belia.
**Bidaia bat nora egingo ziñuke?**
Islandiara. B


BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Telefono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA
Gozogintzan aintzindari.


MARGA
jantzidenda
San Pedro 20. Bergara.
Tf. 943 76 05 37
Estilo gazte eta koloretsutako taila bereziak zeuretako

ARRI
Industri Hornidura
Zubiaurre 30
Tf. eta faxa: 943 76 19 04.
Mugikorra: 670 31 92 44.

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak / Txitxizotzak
Kazolatxoak / Txabierroak
Matxiategi 1 Tf. 943 76 39 53

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta 3

# Santa Ageda eskean, 1947

San Martzial inguruko baserrietako lagun taldea ekarri dugu aste honetan Erretratu Zaharrera. Argazkia 1947. urtekoa da eta bertan, Santa Ageda bezperan baserriz baserri eskean ibili zireneko testigantza grafikoa jaso da.

Gaur egun Bergaran ohitura galdua da eta kaleetan zehar bakarrik ibiltzen dira Santa Ageda eskean, baina garai hartan auzo gehienetako gazteak irtetzen ziren kantuan. Esan digutenez, edozer gauza ematen zieten eta jan eta edatekoak, behintzat, ez zitzaien falta izaten, argazkian ikus daitekeen moduan. Hara nortzuk diren argazkian agertzen direnak, ezkerretik hasita.

**Goian:** Pedro Ibarguren (Zaldumendi baserrikoa), Bixente Garitano (Lapatzakoa) eta Jose Angel Larrañaga (Azkatzu azpikoa).

**Erdian:** Pablo Uribesalgo (San Joxepekoa) eta Bixente Ibarguren (Zaldumendikoa).

**Behean:** Jesus Ibabe (Azkatzu gainekoa), Pedro Errasti (Aizpekoa) eta Bixente Uribesalgo (Txarakoa).

*Argazkia: Mari Nieves Garitano*



**ADI!**

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, BERRIGARAra bertara ekar dezakezu. Errotalde jauregian gaituzu, zatoz!

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotelea
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

# Prezioak eta abantailak

**Zatoz Mapfrera zure autoaren prezioak eta liderrarekin aseguratzearen abantailak ezagutzera.**

| | DIEZ 10 poliza | TREBOL poliza | LIDER Fr. 50.000 poliza | TODO RIESGO 100 poliza |
|---|---|---|---|---|
| Opel Astra 1.6 8 bal. Club 5 ate | 47.133 | 48.896 | 75.820 | 97.628 |
| Citroën Xsara 1.6 i Tonic 5 ate | 51.761 | 53.524 | 94.100 | 115.939 |
| Ford Fiesta 1.1 Calypso 3 ate | 45.824 | 47.587 | 67.387 | 82.633 |
| Audi A4 1.9 TDI Ambition | 61.597 | 63.360 | 168.235 | 228.411 |
| Renault Clio 1.2 Alize 3 ate | 47.133 | 48.896 | 75.820 | 97.628 |

Prezio denak: urte osokoak; 31 urteko gidaria, 11 urteko karneta, emakumea eta ezkondua; justifikatu beharreko %30eko deskontua barne.

**Eta Mapfrerekin azkartu**  **itzazu zure bonifikazioak**

**MAPFRE**

Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

# Aprobetxa ezazu aukera

Nissan Primera 4 edo 5 atekoa

Gasolina **2.081.000** pezetatik aurrera

Turbo Diesela **2.348.000** pezetatik aurrera




NISSAN ZERBITZU OFIZIALA

T. Blanco

Amillaga 22
BERGARA
Tf. eta faxa: 943 76 17 35



Maalako
errebala 13
ARRASATE
UNITED COLORS
OF BENETTON.